

4 EURO • 2013KO MARTXOA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA

hh
hik hasi

176




GAIA: ARRUE PROIEKTUA: IKASLEEN HIZKUNTZA-ERABILERAK •
ELKARRIZKETA: MIKEL ZALBIDE • PARTAIDETZA (VI) • PSIKOMOTRIZITATE-
ARETOAK • GALDEIDAZUE: ELENA JIMENEZ, JORGE ORTEGA
• ZUMALAKARREGI MUSEOA • ESTITXU EIZAGIRRE



EMOZIOAK
SENTITZEKO
IPUINAK



LATA BATEN GORABEHERAK
Ilusioari buruzko ipuin bat



TIMUTI JIRAFÁ
Gaitzespenari buruzko ipuin bat

BIZI LITERATURA

10 URTEK GORA



RITA ETA
ALKIMISTAREN AMETSA

Pragara joan da Rita,
elezaharrak errealtatearekin
bat egiten duten hirira.

12-16 URTE



AMAIA LAPITZ
ETA DIDOREN
ERMANDADE SEKRETUA

Mexikoko gertakariaren ondoren,
Tunisiara joan da Amaia Lapitz.

elkar

www.elkargitaletxea.com

aurkibidea



10
gaia

IKASLEEN HIZKUNTZA-ERABILERA

Ebaluazio Diagnostikoaren emaitzen arabera, gela barruko hizkuntza joera nagusia irauli egiten da LMH4tik (ikasleen %60a beti edo gehienetan euskaraz aritzen dira) DBH2ra (%60a beti edo gehienetan gaztelaniaz aritzen dira). Halaber, jolaslekuan beti edo gehienetan gaztelaniaz aritzen dira ikasle gehienak, aztertutako bi ikasmailetan.



16
elkarrizketa

MIKEL ZALBIDE

Euskararen ezagueran eta transmisioan eskolak jokatzeko duen zereginaz mintzatu gara Mikel Zalbiderekin. Haren iritziz, eskolak "funtsezko helburuak ditu egin behar globalago batean, baina ezinbestekoa da bere muga-baldintzez ondo jakitun izatea eta horren arabera jokatea".

5 editoriala

6 hizpide izan da

8 hizpide izango da

10 gaia

ARRUE PROIEKTUA: EAEko LMH4ko eta DBH2ko ikasleen hizkuntza-erabilera aztertu ditu

18 elkarrizketa

MIKEL ZALBIDE. Eusko Jaurlaritzako Euskara Zerbitzuko burua

26 PARTAIDETZA (VI)

30 ekarpenak

Psikomotrizitate-aretoak herritarrentzat

36 galdeidazue

Hezkuntzako profesionalok zer ikas dezakegu sexologiatik ikasgelan ditugun neska-mutilei laguntzeko?

Elena Jimenez, Jorge Ortega

40 nora joango gara?

Zumalakarregi Museoa

42 Atzeko atetik

Estitxu Eizagirre. Kazetaria

Argitaratzailea: **XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA.** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitxu eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbao, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Uxue Ugartemendia. Diseinua: Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko argazkia: Soziolinguistika Klusterra. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2013-02-25). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION



Eman diezaiogun hezkuntzari **garrantzia**



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitez!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan,
jardunaldietan eta argitararaten
ditugun gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

| | |
|-------------------|---------------------------|
| Izena | 1. Deitura |
| 2. Deitura | Telefonoa |
| Helbidea | Posta Kodea |
| Herria | Herrialdea |
| Lantokia | Lantokiaren herria |
| IFZ-NAN | Posta elektronikoa |

| | | | | | | | | | |
|----------------------|----------------------|----------------------|----------------------|----------------------|----------------------|----------------------|----------------------|----------------------|----------------------|
| <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> |
| Entitate | Sukurtsala | K.D. | | | | | | | Zenbakia |
| Sinadura | | | | | | | | | |

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxa: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala

martxoa

Eragileok eskaria alderdiei

EHIGE, BIHE, Sarean, Ikastolen Elkartea, Erkide Irakaskuntza, Sortzen Ikasbatuaz, Kristau eskolak, Bidegun, Ikasle Abertzaleak, Hetel, EIB, Eliz barrutiko ikastetxeak, Ikasgiltza, Euskararen Gizarte Kontseilua eta hik hasi-k honako testu honi atxikimendua eman diogu. Agiria Eusko Legebiltzarreko alderdi politikoetako ordezkarietara helarazi genien otsailaren 22an.

Hezkuntza norbanakoaren eskubidea izateaz gain, eskubide soziala eta hirirtartasunaren espresio handienetakoa da. Ondorioz, hezkuntza sistema gure herriaren aurrerapenerako eta kohesio sozialerako giltzarria dela, behin eta berriaz lehen jarri eta azpimarratu beharra dago.

Zentzu honetan, gure Hezkuntza Sistema egunez egun indartzea eta, behar denean, defendatzea da, gaur hemen gauden eragileok mugitzen gaituen

zeregina. Horregatik, ez dugu onartuko gure hezkuntza sistemari atzerakada pedagogikoa eragingo dion legedirik.

Gure hezkuntza sisteman dauzkagun ibilbide eta esperientzia pedagogikoak ematen digun autoritate moraletik, hemen elkartuta agertzen garen hezkuntza eragileok adierazten dizuegu, LOMCE legea aplikatuko balitz azken urteotan eskoletan egin dugun lanari, eta, batez ere, ikasleen ikas-irakas prozesuari eragingo lizkioken kalte larrien aurrean, ezinbestekoak direla, besteak beste, alderdi politikoen, erakundeen eta hezkuntza eragileen arteko elkarlana, partaidetza eta adostasuna.

Horregatik, Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta zaudeten partidu politikooi ondokoa eskatzen dizuegu:

a) LOMCEren erasoaren eta hezkuntza atzerakadaren aurrean, gure Hezkuntza Sistemaren eta euskal herritarren hezkuntza eta hizkuntza eskubideen babesa eta defentsa egitea ordezkari-

tza politikoaren jardunak hartzen dituen eremu guztietan.

b) Era berean, eskatzen dizuegu, legegaren eztabaida eta ondorengo izapidetzeko prozesuan, Legebiltzar honen eta Euskal Gobernuaren eskumenak eta formula juridiko desberdinak ahalik eta era egokienean eta eraginkorrean erabiltzea, hezkuntza eragileon iritzia eta eskaerak defendatzeko, eta gure herriaren hezkuntza lege-marko iraunkor bat bermatzeko.

c) Horretarako, Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta zaudeten alderdien artean hezkuntza eragileok lortu dugun adostasun maila lortzea ezinbestekotzat jotzen dugu, gure hezkuntza sistemaren defentsarik irmoena sustatzeko eta bermatzeko, atzerapenik gabe eta beharrezkoak diren baliabideak bermatuz.

d) Aipatu dugun ibilbide eta ekimenean, hezkuntza eragile eta euskal hezkuntza komunitate osoaren iritzia eskatzea eta kontuan hartzea.

Hik Hasi proiektuaren zutabe garrantzitsu bat galdu dugu. Gure eskerrik maitagarrienak ARANTZA GOIBURU andereñoari administrazio lanetan Hik Hasiri eskaini dizkion urteengatik.

***“Ahazten duguna
hiltzen delako soilik,
maite zaitugulako
jarraitzen duzu bizirik”.***



hizpide



'LOMCEri EZ, Gure Hezkuntzari BAI'

EHIGE, BIHE, Sarean, Ikastolen Elkarte, ERKIDE Irakaskuntza, Sortzen-Ikasbatua, Kristau Eskola, Bidelagun, Ikasle Abertzaleak, EIB, Eliz Barrutiko Ikastetxeak, Ikasgiltza, Hete, Ikaslan, Euskararen Güzarte Erakundeen KONTSEILUA, Hik Hasi, CCOO, UGT... hezkuntza-eragileek LOMCEren kontrako eta Gure Hezkuntzaren aldeko adierazpena zabaldu dute Bilbon. Hona hemen adierazpenaren pasarte batzuk:

“Adierazpen honen sinatariok ezaugarri nagusi batek batzen gaitu: gure aniztasunak. Anitzak gara eta, gure hezkuntza sistemaren eraikitzeari dagokionez, ikuspegi anitzak ditugu gure baitan. Hala ere, bat gatzoz LOMCE delako legearen edukia aztertzerakoan, bere ezarpenak gure ikasleriaren heziketarako eta gure hezkuntza sistema propioa eraikitze bidean ekarriko lituzkeen ondorioengatik.

(...) Nazioarteko azken ebaluaketek eta ebaluazio diagnostikoez adierazi duten bezala, gure ikastetxeen egoera eta errealitatea desberdinak dira Estatuko beste sistemekin alderatuz gero. Izan ere, gure adierazleak nabarmenki hobeak dira arlo hauetan: eskola-uzte goiztiarraren tasa, DBHko tituludunen portzentaia, goi-mailako ikasketen titulazio-tasa, eta abar. Era berean, badakigu zertan hobetu behar dugun eta ikasleen kompetentzia guztiak garatzea dela aurrerantzean gure erronka nagusia.

(...) Gure helburua ikasle euskaldun ele-aniztunak sortzea da. Ondorioz, euskara ardatz duen eredu bakarra behar dugu, eta ikaslearen ingurune soziolinguistikoa eta gaitasun psikologikoak kontutan hartuko dituen ikaskuntza metodologia ezarri. LOMCEk zalantzan jartzen du planteamendu hau, ez baita bermatzen eta indar-

tzen hezkuntza koofizialen esparruetan hezkuntzarik ahulena (planteamendu honek euskararen aurka jotzen du). Halaber, enborreko jakintzagaia ez izanik, bigarren mailako hezkuntza bihurtzen du.

(...) Aldi berean, adierazi nahi dugu gure desadostasuna Legeak sustatzen duen hezkuntza eredu eta irizpide baztertzailarekin. Aitzitik, eskola inklusiboa, konpentsatzailea eta integratzailea bultzatzen dugu, hots, ikasle guztiarentzako aukera berdintasunean, ekitatean eta kalitatean oinarritzen den hezkuntza. Hori dela eta, ezin gara bat etorri 14 urtetik aurrera ikasleak sailkatu eta bereizi egiten dituen lege batekin.

(...) Halaber, curriculumaren antolaketak hezkuntza sistemaren uniformetasuna eta kontrola bultzatzen ditu, hezkuntza eta ikasle eredu bat sustatuz: curriculum-ataleko helburu zurrinak ezartzea, Gobernuak erabakitako irizpideen bidez ebaluatu eta neurtzea, DBH eta Batxilergo bukatzera-koan errebalidatzea eta bitarteko mugarriak LHn tartekatzea, eskuraturiko datuekin eskolen sailkapena egin eta hauexek publiko bihurtzea...

(...) Gure iritziz, hezkuntza sistema iraunkortasunez hobetu nahi bada, ezinbestekoa da alderdi politikoan eta eragileen parte-hartzea eta adostasuna. (...) Bestelako bidea proposatzen dugu: praktikaren gaineko hausnarketa eta gogoeta eginez, hezkuntza sistema aurreratuenen esperientzia kontuan hartuz eta Euskal Herriaren tesuinguruan aplikatuz, gure Hezkuntza Sistema eta Curriculum Propioa pixkanaka eraikiz joatea. LOMCEri EZ, Gure Hezkuntzari BAI”.

Agiri osoa irakurtzeko:

www.hikhasi.com

izan da

Haurreskolak partzuergoan gaztelania gehiago erabiltzearen alde egin dute EAJ, PP eta UPD alderdiek

Euskal Autonomia Erkidegoko “bi hizkuntza ofizialena tratamendua” behar bezainbeste “txeratzeko” eskatu zion, otsailaren 8an, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari, EAJren PPren eta UPDren babesarekin. Hizkuntzen trataera horrek umeen ama hizkuntza errespetatu behar duela gaineratzen du testuak, baina ez ditu aintzat hartzen gaztelania eta euskaraz besteko ama hizkuntzak. “Ez da arrazoizkoa gaztelania Haurreskolak Partzuergoako eskolatik desagertzen aritzea” azaldu zuen PPko bozeramaile Iñaki Oiartzabalek. Gorka Maneiro UPDko legebiltzarkideak ildo bereko argudioa erabili zuen: “0 eta 2 urteko arteko umeek eskubide osoa dute gaztelaniaz hitz egin diezaieten”. EAJko Maria Eugenia Arriabalagak “bizikidetzat linguistikoa” argudiatu zuen neurriaren alde bozkatzeko.

EH Bilduk euskararen bazterketa eta gurasoen aukeraren ukazioa ekarriko lukeela uste du, eta euskara hizkuntza gutxitu izanik, neurri hori betetzea atzerapauso izango litzatekeela azaldu zuen Rebeca Ubera legebiltzarkideak.

Kontseilua, LAB eta ELA kezkatuta eta harriturik azaldu ziren partzuergoan gaztelania gehiago erabiltzeko proposamenaren aurrean; “euskararen normalizazioaren aurkako eraso larritzat” jo zuten hiru eragileek Legebiltzarraren eskerra. Ez zegoen lekuan arazo bat sortzea egotzi zieten eragileek EAJ, PP eta UPDri: “Gurasoen aldetik ez da sekula kezarik egon hizkuntzaren inguruan, eta egitasmoarekin, eztabaidaren erdigunean kokatu nahi izan dute”. Bien bitartean, haur eskolek “benetako arazoa” alde batera utzi izana salatu zuten.

Nafarroako D ereduko ikasleen gastuak

Nafarroako Parlamentuko bozeramaile batzordeak mozio bat onartu du eremu ez-euskalduneko Dereduko ikasleen hainbat gastu Gobernuak bere gain har ditzan. PSN, Bildu, NaBai eta Ezkerra alderdiek babestu dute mozioa.

Egunero, euskaraz ikasi ahal izateko, hogeikilometroko bidaia egin behar izaten dute 1.400 ume eta gaztek, Sortzen-Ikasbatuazek azaldu duenez. Garraioan eta jangelan gastatzen duten diru kopuruari aurre egiteko, laguntzak emateko eskatu dio Parlamentuak Nafarroako Gobernuari onartutako mozioan. Haur guttiak kontuan hartuta, 750.000 eurotik gorakoa da gastua, Sortzen-Ikasbatuaz araber. Nafarroa hiru eremutan zatitzen duen legearen ondorioz hainbat haur eta gazte “hizkuntza exodora” behartuta daudela salatu du elkarteak.

Iparraldeko ikastolentzat egokia den marko eredu bat aztertze bilerak egin dituzte

Hendaia ikastola berria diruz laguntzeko Baionako suprefetak udalari ezarritako debekuaren harira Seaskako ikastolen finantzaketa publikoaren inguruan sortutako gatazka konponbidean jartzeko asmoz hainbat bilera egin dituzte otsailean. Lionel Beffre Pirinio Atlantikoetako prefetak Seaskako arduradunak hartu zituen Paueko bere bulegoan, eta konponbidea atzematuko borondatea azaldu zion. Eskola pribatuak diru publi-

koaz laguntzea galarazten duen *Falloux legea* aldatzea ez dago suprefetaren esku, baina bai, ordea, legea betearaztea. Seaskako Paxkal Indo lehendakariarekin eta Hur Gorostiaga zuzendariarekin izandako bileran ez zuen argitu legea betearaziko duen ala ez.

Frantxoa Maitia Euskal Erakunde Publikoko presidentea ere bilera egin zuen Beffrerekin, eta jarrera “baikorra” jaso zuen harengandik. Maitiak eskaera bikoi-

tza egin zion prefetari: Hendaia ikastolaren auziari aterabidea ematea, eta legedia aldatzeko bidea aztertzea. Hain zuzen, ikastolen ereduarentzat egokia den lege marko bat aztertze bilerak egin dituzte. Colette Capdevielle diputatu sozialista eta Paxkal Indo. Capdeviellek jarrera irekia erakutsi zuen, eta Seaskaren proposamenak aztertu zituen. Seaskaren irudiko, *Falloux legea*-k ezartzen duen egoera gaundituko duen lege bat osatu behar da eskola erreformaren barruan. Bitartean, hainbat mobilizazio egin dira otsailean, Seaskak deituta. Jendetsuena, otsailaren 3an Hendaian egindako manifestazioa.

hizpide



Francesco Tonucci Euskal Herrian izango da maiatzean, eskola eta herriari buruz Hik Hasi-k antolatu dituen jardunaldietan

Herri hezitzailea eta eskola herritarra izenburuarekin, bi eguneko jardunaldiak antolatu ditu Hik Hasi-k, eta berauetan parte hartuko du Francesco Tonucci *Frato* pedagogo eta marrazkilaria, bi hitzaldi eskainiz. Donostian izango dira jardunaldiak, maiatzaren 10ean eta 11n.

Lehen eguneko saioak, hezkuntza ardatz duen herri-ereduari buruzkoak izango dira. Herriak haurren garapenean, autonomian, sozializazioan, eta oro bat, heziketan duen garrantzia mahai gainean jarriko du Tonuccik, eta Haurren Hiria bere proiektua aurkeztuko du. Bertan, haurretatik abiatu, herritar guztien ongizatea bermatuko duen hiri- partehartzailearen eredu garatzeko pausoak azaltzen ditu. Bigarren egunean eskolari buruz mintzatzeko da Tonucci, eta haur guztientzako egokia den eskola-eredua proposatzeko du.

Tonucciren hitzaldiez gain, Euskal Herriko ekarpenak eta esperientziak ezagutaraziko dira bi egunetan. Batetik, haurrak erdigunean dituzten hiri-ereduetako proiektuak eta prozesu parte hartzaileak ezagutaraziko dituzte; eta, bestetik, herrira irekiak dauden Euskal Herriko hainbat ikastetxetako esperientziak ezagutaraziko dira.

Jardunaldietan izena emateko epea apirillean zabalduko da, eta www.hikhasi.com webgunean egongo dira argibide guztiak.

LOMCE aztertuko dute Berriozarren

Ezkerraberi fundazioak Espainiako Gobernua prestatzen ari den hezkuntza-erreformaren inguruko jardunaldi bat antolatu du Berriozarren (Nafarroa), martxoaren 9rako. *Wert Legea: hizkuntza koofizialak mehatxu uniformizatzailearen aitzinean* izenburuko jardunaldian Herrialde Katalanetako, Galiziako eta Euskal Herriko adituek hartuko dute parte: Josep Maria Cervello (Som Escola plataformakoa), Vicent Mauri (Intersindical Valenciana), Carlos Callon (Mesa pola Normalizació Lingüística), Lurdes Imaz (EHIGE Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarte) eta Garikoitz Torregrosa (Sortzen-Ikasbatuaz). Antolatzailerik lau helburu dituzte: Estatuan berezko hizkuntza koofiziala duten erkidegoen hezkuntza sistema ezberdinen inguruko ikuspegi orokorra eskaintzea; Estatuan berezko hizkuntza duten erkidegoen hezkuntza sistema ezberdinen gainean Wert legearen aurreproiektuak izanen dituen ondorioak aztertzea; lege aurreproiektu honen aurrean ematen ari diren/ eman behar diren erantzunez gogoeta egitea; eta parte-hartzaile guztien arteko deklarazio komuna adostea.

Jardunaldian izen-ematea doakoa da eta fundazioa@ezkerraberi.org helbidera idatziz edo 948 206362 zenbakira deituz egin daiteke martxoaren 5a arte.

izango da

Pikler-Loczy Euskal Herria elkarre sortu berrian bazkidetza egin daiteke, dagoeneko

Otsailaren 23an, Lizarran burutu zen *Autonomia sentimendua sustatzeko eguneroko egoeretan* jardunaldiaren aterbean, eta 400 bat entzuleren aurrean, Euskal Herriko Pikler-Loczy Elkarre sortzearen ekitaldia egin zen. Elkarrearen hainbat bultzatzailek egin zuten elkarrearen aurkezpena, eta Budapesteko Löczy Institutuko Eszter Mozes eta Jutka Kelleman ordezkariak ere bertan izan ziren, jardunaldietan parte hartu baitzuten, hizlari gisa. Hortaz, nahi duenak

bazkidetza egin dezake dagoeneko Pikler-Loczy Euskal Herria elkarrean.

Laster, Euskal Herriko Pikler-Loczy Sarea desagertu egingo da eta elkarre berriak izango duen webaren bidez zabaltzen jarraituko dute informazioa. Euskal Herriko Pikler-Loczy Sarea 2009. urteko abenduan sortu zuten, eta 300dik gora kide zituen; haur eskolako hezitzaileak, irakasleak, psikoterapeutak eta psikologoak daude tartean.

Haur Hezkuntzako 0-6 etapa izango da Ikastolen Elkarteko XX. Jardunaldi Pedagogikoen ardatza

Handitzen, handitzen, hasi naiz handitzen izango dute lelo Ikastolen Elkarrearen antolatutako XX. Jardunaldi Pedagogikoen, Gasteizen. Haur Hezkuntzako 0-6 aroa izango da martxoaren 13 eta 14ko egitarauaren ardatz nagusia, eta bertan hainbat adituk hartuko dute parte. Esaterako, lehen egunean, Rosa Sensat fundazioako zuzendaritzako kide David Altamirrek *Haurtzarora entzuten: 0-6 etaparen garrantzia heziketan* hitzaldia eskainiko du, eta *Talde lana, eztabaida irekia* gaiari buruzko mahainguruan parte hartuko dute Txintxirri (Elorrio), Armentia (Gasteiz), Jesusen Bihotza (Billabona) eta Erentzun (Viana) ikastoletako ordezkariak. Halaber, Alex Barandiaran eta Iñaki Larrea Huhezi fakultateko irakasleek Hazitegi egitasmoa aurkeztuko dute.

Josep Maria Artigal Haur Hezkuntza-

ko irakasle, formatzaile eta editoreak zabalduko du bigarren eguna, *Entzuten gaituzten neurrian ikasten dugu* izenburuko hitzaldian. Arantza Zugazagasti Santo Tomas Lizeoko irakasle, Ikastolen Elkarteko material sortzaile eta irakasleen formatzaileak hartuko dio lekukoa, *Begiak irki, belarriak erne eta mingaina... dantzat!* hitzaldiarekin. Ondoren, hainbat ikastolako ordezkariak esperientzia komunikatibo desberdinak azalduko dituzte. Karmele Perez Huheziko irakasle eta MIKER ikertaldeko partaideak eskainiko du jardunaldiko azken hitzaldia: *Komunikazioaren garrantzia gelako dinamikan: zereginak gelarako*.

Jardunaldietan izena emateko epea martxoaren 8ra arte dago zabalik.

Euskal curriculuma garatzen duen DBHko ikasmaterial berria

Ikasle argitaletxeak EKI proiektua aurkeztuko du apirilean. Euskal curriculuma garatzen duen DBHko ikasmaterial berritzailea biltzen du proiektuak, eta 2008an onetsitako 'Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculum oinarriko eta komuna' obran du jatorria. Ikasleen konpetentziak lantzeko, norabide eruoparrek ezarritako oinarriak baliatzen ditu, eta osagai guztiak uztartzeko, Integrazioaren Pedagogiari buruzko ikuspegi propioa eraiki du egitasmoak. Edukiak digitalean eta inprimatuan eskaintzen dira, konpetentzia digitala lantzeko aukeran arreta berezia ipiniz. Ondorengo sei ikas arlo hauek lantzen ditu: Euskara eta Literatura, Lengua Castellana y Literatura, English, Gizarte Zientziak eta Naturaren Zientziak.

47 hezkuntza-profesionalek sortu eta 23 ikastetxetan 226 irakasleek balioztatu dute egitasmoa, alde aurretik egin duten esperimazioaren bidez. Apirilaren 15, 16, 17 eta 18an, 'Agerraldiak' izeneko emanaldietan, ikasmaterialok aurkeztu eta erakutsiko zaizkie hezkuntzako profesionalei, agintariei, espezialistei eta adituei.

GAIA

Arrue proiektua

LMH eta DBHko ikasleen hizkuntza-erabilerak



Soziolinguistika Klusterrak Arrue proiektuaren emaitzak aurkeztu zituen Donostiako Kursaal-en egindako jardunaldian. Argazkiak: Soziolinguistika Klusterra



Ikasleen eskola giroko hizkuntza erabilerak ezagutzeko Arrue proiektuaren barruan egindako Ebaluazio Diagnostikoaren emaitzak ezagutzera eman dituzte berriki. LMH4ko eta DBH2ko ikasleek euren artean eta irakasleekin gelan eta jolastokian erabiltzen duten hizkuntzaren joerak neurtu dituzte, eta hainbat ondorio atera dira. Horien artean nagusietako bat ondoko hau da: gela barruko hizkuntza joera nagusia irauli egiten da LMH4tik (ikasleen %60a beti edo gehienetan euskaraz aritzen dira) DBH2ra (%60a beti edo gehienetan gaztelaniaz aritzen dira). Halaber, jolaslekuan beti edo gehienetan gaztelaniaz aritzen dira ikasle gehienak, aztertutako bi ikasmailetan. Adinean aurrera egin ahala gizarteko hizkuntza erabileraren arau nagusiekin bat egitera jotzen dute ikasleek, ikerketaren egileek ondorioztatu dutenez.

G

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, ISEI Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak eta Soziolinguistika Klusterrak lankidetzan garatutako Arrue proiektuaren barruan egindako Ebaluazio Diagnostikoaren emaitzak aurkeztu dituzte urte hasierarekin batera. Eskola giroko hizkuntza erabilera ikuspegi ezberdinetatik neurtu eta aztertze sortu zen Arrue proiektua 2004an, eta orain aurkeztutakoak 2011n Euskal Autonomia Erkidegoko LMH4ko eta DBH2ko ikasle guztiekin egindako datu-bilketaren emaitzak dira. Ikasleek euren artean eta irakasleekin gela barruan eta jolastokian dituzten hizkuntza erabilerari buruzko datuak bildu, aztertu eta ondorioak atera dituzte.

Ikasleen ezaugarriak

Diru publikoarekin finantzaturako EAEko 851 ikastetxeetako 35.844 ikasle hartu zuten parte datu-bilketan. LMH4ko ikasle gehienak 2011. urtean jaiotako dira (% 91), beraz datuak jaso zirenean 9-10 urte zituzten; DBH2ko gehienak berriz, 1997an jaiotako dira (% 79,9) eta 13-14 urte zituzten datu bilketa egin zenean. Aipatzekoa da bi ikasmailetan ikasleen gehiengoaren lehen hizkuntza gaztelania dela: % 62 LMH4ko ikasleen artean, eta % 60,2 DBH2koen artean. Halaber, lehen hizkuntzat euskara edo euskara eta gaztelania duten ikasleak gehiago dira DBH2n LMH4n baino (% 35,4 eta % 33,5). Datu hori sakontzeko moduko puntua izan daiteke EAEko hizkuntza-transmisioaren gaia aztergai dutezentzat, azterketaren egileek txostenean aipatu dutenez.

Hizkuntza-ereduei dagokienez, D erdua da nagusi bi ikasmailetan (ikasleen % 64 eta % 59, hurrenez hurren), eta A ereduak pisu txikia du (% 7 eta % 13). Hala ere, bai LMH4n bai DBH2n (bereziki, azken hauen artean) gehiengo dira hitz egiteko gaztelaniaz euskaraz baino errazago moldatzen direnak (% 54,8 eta % 64,6, hurrenez hurren). Aldiz, euskaraz gaztelaniaz baino errazago egiten dutenak % 21,1 eta % 18,5 dira.

Bestalde, euskararekiko atxikimendua erakusten dute Arrue proiektuan jasotako datuek. LMH4ko ikasleen artean gehiengo dira euskara “nahiko” edo “asko” gustuko dutenak (% 63 orotara), eta % 12a baino ez euskara “gutxi” edo “bat ere ez” gustuko dutenak. DBH2koen artean euskararen aldeko atxikimendua behera egiten du portzentaian, baina hala ere gehiengo da jarra hori (% 55). Euskara “bat ere ez” edo “gutxi” gustuko dutenak % 19a dira. Gaztelaniarekiko atxikimendua baina, euskararekiko baino handiagoa da bi ikasmailetan: % 83 LMH4n eta % 71 DBH2n.

Euskararen zailtasunaz ikasleek duten irudikapena ere jaso du ikerketak. LMH4ko ikasle gehienentzat euskara “erraza” (% 25) edo “oso erraza” (% 36) da. DBH2n euskara “erraza” dela diotenak antzeko proportzioa dira (% 26) baina euskara “oso erraza” dela diotenen kopurua nabarmen txikiagoa da (% 18). Euskara “zaila” edo “oso zaila” dela uste duten ikasleak % 9a dira LMH4n eta % 20a DBH2n. Gaztelania “erraza” edo “oso erraza” da LMH4ko ikasleen % 84arentzat, eta DBH2ko % 68arentzat. Oro har, ingelesa “zaila” edo “oso zaila” dela dioten ikasleen proportzioa, euskararen eta gaztelaniaren kasuan baino nabarmen gehiago da.

Euskararen zailtasunari buruzko irudikapenaren aldagaia eta ikasleen lehen hizkuntzaren aldagaia gurutzatu dituzte ikerketaren egileek, eta ondorio hauek atera dituzte. Batetik, ikasleek etxean jasotako lehen hizkuntza euskara edo gaztelania izateak badu eragina irudikapen horretan, baina eragin apala da: lehen hizkuntza gaztelania dutenen artean, LMH4n, euskara “zaila” edo “oso zaila” dela diotenak 3 puntu gehiago dira aztertutako populazio osoan baino, eta DBH2n 6 puntu gehiago. Bestetik, lehen hizkuntza gaztelania duten ikasleen artean gehiengo nabarmena dira euskara “normala”, “erraza” edo “oso erraza” dela diotenak: % 88 LMH4n eta % 74,5 DBH2n. Azterketako egileen iritziz, datu horiek “EAEko hezkuntza elebidunaren lorpen-

Arrue proiektua

tzat” har litezke, “ikasleen etxeko hizkuntza gaztelania dutenen artean ere irudikapen zailak dituztenak proportzio txikia izatea lortzen den heinean”.

Halaber, hitz egiteko erraztasun erlatiboari buruzko datuak ikasleen lehen hizkuntzarekin alderatu dituzte, eta nabarmentzeko moduko puntuak azaldu dira. Lehen hizkuntza edozein izanik ere, ikasleen erraztasun erlatiboak gaztelaniaren aldeira egiten du LMH4ko eta DBH2ko ikasleak alderatzean. Izan ere, euskara lehen hizkuntza duten LMH4ko ikasleen % 74 errazago moldatzen dira euskaraz hitz egiteko, eta proportzio bera dute gaztelania lehen hizkuntza dutenek, gaztelaniaz. Baina DBH2ko ikasleen artean, lehen hizkuntza euskara dutenen artean % 66a dira euskaraz errazago moldatzen direnak, eta gaztelania lehen hizkuntza dutenen artean berriz, % 84a dira gaztelaniaz errazago moldatzen direnak.

Hori dela eta, “pentsa genezake”, diote azterketaren egileek, “gaur egun EAEko ikasleek eskolan, familian eta gizarteko beste eremuetan bizi duten errealitatearekin, ikasleak helduago egin ahala pisu gehiago hartzen joaten dela gaztelaniaren erabilera soziala ikasleen egunerokoa, euskararena baino. Ondorioz, eskolan antzeko baldintzak izan arren, ikasleen hitz egiteko erraztasun erlatiboak gaztelaniaren aldeko joera du”.

Hedabideen kontsumo-hizkuntzari buruzko galdeketa emaitzek erakusten dute gaztelania dela hizkuntza nagusia, alde oso nabarmenarekin. Web orriak, telebista saioak eta filmak gaztelaniaz kontsumitzen dituzte ikasleen proportzio oso altu batek (% 74 LMH4ko ikasleen artean, % 93 DBH2koen artean), eta euskarazko kontsumoa ez da %20ra iristen (% 3 eta % 16).

Telebistan zein filmen kontsumoan alde aipagarria dago ikasmaita batetik bestera (ez ordea, web orrietan). LMH4ko ikasleen



Ehunka lagunek eman zuten izena Soziolinguistika Klusterrak Kursaalaren antolatutako jardunaldian.

% 14ak gehien ikusten duten telebista programa euskaraz ikusten dute, eta DBH2n hamar puntu baxuagoa da proportzio hori (% 4). Filmen kasuan datuak antzekoak dira: %12 euskaraz LMH4n eta % 3 DBH2n. Euskarazko kontsumoa handiagoa da irratian dagokionez: % 29 LMH4n eta % 25 DBH2n. Aldiz, ikasleek gehien entzuten dituzten musika talde edota abeslarien kasuan, euskaraz abesten dutenak % 15a dira LMH4ko ikasleen kasuan eta % 12a DBH2koen artean. Arlo horretan, euskaraz eta gaztelaniaz ez diren beste hizkuntzetan (ingelesez, batez ere) aritzen diren taldeen kontsumoa da nabarmentzekoa: % 38a LMH4koen artean eta % 47a DBH2koen artean.

Erabilera familian

Etxean, gurasoekin eta neba-arrebekin, eguneroko bizitzan erabiltzen duten hizkuntzari buruz ere galdetu zieten Ebaluazio Diagnostikoaren egileek ikasleei. Bi ikasmaitako ikasle gehienek etxetan, jatorrietan edota telebista ikusten ari direnean, gaztelania bakarrik edo nagusiki erabiltzen da: % 70a LMH4koen artean, eta % 74a DBH2koen artean. Etxean euskaraz bakarrik edo nagusiki aritzen dira ikasleen % 17a eta % 19a, hurrenez hurren. Bi ikasmaita-

ko ikasle gehienek (% 70-% 76) gaztelania darabilte beti edo gehienetan gurasoekin. Beti edo gehienetan euskaraz egiten dutenen proportzioa baxuagoa da LMH4n DBH2n baino (3-5 puntu). Neba-arrebekin euskara erabiltzen dutenak gurasoekin erabiltzen dutenak baino gehiago dira, eta neba-areben arteko erabilera hori 4 puntu baxuagoa da DBH2n LMH4n baino (% 27-% 31).

Bi ikasmaitako ikasleen gurasoek euren artean antzeko hizkuntza erabilera proportzioak dituzte: LMH4n 2 puntu handiagoa da euskaraz egiten dutenen proportzioa eta 2 puntu baxuagoa gaztelaniaz egiten dutenena. Gurasoen arteko erabilera horretan, 10-12 puntu altuagoa da gaztelaniazko proportzioa ikasleek gurasoekin dutenarekin alderatuta.

Eskolaz kanpoko erabilerari dagokionez, alde nabarmenak daude LMH4tik DBH2ra. Izan ere, gazteenen kasuan % 32a euskaraz beti edo gehienetan aritzen dira eta % 50a gaztelaniaz beti edo gehienetan. Aldiz, DBH2koen artean, gaztelaniazko proportzioa 13 puntu altuagoa da eta euskarazkoa 9 puntu baxuagoa.

Eskola giroko erabilerak

Ikasleen eskola giroko hizkuntza erabi-

lerak dira Arrue ikerketaren aztergai nagusia. Lau multzotan banatu dituzte erabilera horiek: ikaskideen artekoa gelan, ikaskideen artekoa jolaslekuan, ikasleek irakasleekin gelan dutena, eta ikasleek irakasleekin gelaz kanpo dutena.

Ikaskideekin gela barruan erabiltzen duten hizkuntzari dagokionez, erabilera-proportzioak oso ezberdinak dira bi ikasmailetan. LMH4n euskaraz beti edon gehienetan egiten dutenak % 60a dira, eta DBH2n berriz, % 28a. Gaztelania beti edo gehienetan erabiltzen dutenen multzoa LMH4ko ikasleen % 25a da eta DBH2ko ikasleen % 60a. Beraz, lau urteko tarte horretan (9-10 urte izatetik 13-14 urte izatera pasatzean) gela barruan ikasleek duten hizkuntza joera “irauli” egiten da, % 60tik % 28ra murrizten baita euskaraz beti edo gehienetan aritzen direnen portzentaia. Halaber, gaztelania erabiltzen dutenen portzentaia laurdena izatetik gehiengo izatera pasatzen da.

Ikaskideekin jolaslekuan beti edo gehienetan gaztelaniaz egiten duten ikasleek gehiengo zabala osatzen dute bi ikasmailetan. Hala ere, alde nabarmenak daude proportzioetan ikasmila batetik bestera: % 59a LMH4n eta % 75a DBH2n. Gela barruko erabilerekiko aldaketa nabarmena ematen da LMH4ko ikasleen artean, gehiengo euskaraz aritzen baita gela barruan, baina jolaslekuan gehiengo da gaztelaniaz aritzen dena. DBH2ko ikasleen artean aldaketa ez da hain handia, baina hala ere, gutxiago dira jolaslekuan euskara erabiltzen dutenak gela barruan erabiltzen dutenak baino.

Irakasleekin euskaraz beti edo gehienetan egiten duten ikasleek gehiengo dira bi ikasmailetan, bai gelan (% 74a, LMH4n; % 61a, DBH2n) bai gelatik kanpo (% 64a-% 52a). Gelan gaztelaniaz beti edo gehienetan egiten dietenen proportzioa % 13koa da LMH4n eta % 26koa DBH2n; gelatik kanpo, gaztelaniazko portzentaiek gora egiten

Esan daiteke ikasle gazteagoetatik helduagoetara gizarteko hizkuntza-erabileraren arau nagusiekiko konbergentziarako joera erakusten dutela datuek

Ikasleen arteko eskolako hizkuntza-erabilerek lotura nabarmena dute eskolatik kanpo bizi duten errealitate linguistikoarekin

dute: % 24 LMH4n eta % 36 DBH2n.

Hortaz, ikasleen jokaera nahiko ezberdina da, beraien artean hitz egin edo irakasleari egin, DBH2n batez ere. DBH2ko ikasleen gehiengoak gaztelaniaz egiten du nagusiki ikaskideekin (gela eta gelaz kanpo) eta euskaraz irakasleekin (gela eta gelaz kanpo). LMH4ko ikasle gehiengoak euskara erabiltzen du beti edo gehienetan irakasleekin (gela eta gelatik kanpo), eta ikaskideekin gelan. Baina jolaslekuan LMH4ko eta DBH2ko ikasleek gaztelaniaz egiten dute nagusiki euren artean.


Ondorio orokorrak

Ikasleek eskolan dauden bitartean duten hizkuntza erabilera nolabait laburtzeko, azterkeraren egileek indize bat sortu dute, *Ikasleen eskola erabilera orokorra* izenekoa, 1etik 5erako eskala batekin. 1 muturrak “dena erdaraz” adierazten du eta 5 muturrak “dena euskaraz”. LMH4ko ikasleen batz bestekoa 3,26koa da, eta DBH2ko ikasleena 2,60koa.


Ikerlariak ateratako ondorioen arabera, “ikasleen arteko eskolako hizkuntza erabilerek lotura nabarmena dute eskolatik kanpo –familian zein bestelako gizarte alorrean– bizi duten errealitate linguistikoarekin, eta aldatu egiten dira errealitate horien arabera”. Datuetatik ondoriozta daiteke “LMH4ko ikasleen artean eskolak lortzen duela eremu gisa gizartearekiko nolabaiteko autonomia bat. Aldiz, DBH2n kanpoko errealitatearekiko loturak askoz estuagoak dira, eta ondorioz ikasleen arteko euskarazko erabilera baxuagoa da DBH2n LMH4n baino”. Alegia, “esan daiteke ikasle gazteagoetatik helduagoetara konbergentziarako joera erakusten dutela datuek gizarteko hizkuntza erabileraren arau nagusiekiko”. Horren adibide gisa, datu bat eman dute Arrue proiektuaren ikerlariak: “LMH4n, beren etxeko lehen hizkuntza gaztelania duten ikasleen % 49a euskaraz aritzen dira gela ba-




Arrue proiektua




- Beti euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago
- Bietan berdin
- Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago
- Beti gaztelaniaz



- Beti euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago
- Bietan berdin
- Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago
- Beti gaztelaniaz



- Beti euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago
- Bietan berdin
- Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago
- Beti gaztelaniaz



- Beti euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago
- Bietan berdin
- Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago
- Beti gaztelaniaz

rruan bere ikaskideekin beti edo gehienetan. DBHn aldiz, proportzio hori % 13koa dira”.

Hala ere, euskaldunen proportzioa % 60tik gorakoa den herrietan, alegia, gizarte bizitza orokorra euskaraz garatzen den herrietan, ez da ia jaitsierarik, ez gelatik jolaslekura eta ez LMHtik DBHra. Beraz, ikasleak helduak izan ahala erdara gehiago erabiltzen dutela esatea ez da guztiz zuzena; ikasleak helduak izan ahala egiten dute gizarte horretan helduek egiten dutena.

Ikasleen eskolako erabilera orokorra indizeak beste aldagaiekin nolako loturak dituen ere aztertu dute, eta LMH4ko ikasleen artean loturarik handien duen aldagaia *Hizkuntza-eredua* dela ondorioztatu dute; DBH2ko ikasleen artean berriz, eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan duten hizkuntza erabilera da lotura handiena duena. DBH2ko ikasleak A, B eta D ereduetan berezita, *Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan* aldagaia nagusitzen da erregresio bidezko analisisetan. “Horrek agerian hartzen du eskolaz kanpoko, alegia, gizarteko edo herriko hizkuntza giroak eskolaren baitako erabileran duen zeharkako eragin handia”, dio txostenak. “Pentsa liteke, gizartea ez ezik, familia ere eragile garrantzitsua dela”. Halaber, egindako analisisiek “berresten dute ikasleen eskolaz kanpoko hizkuntza-giroak eskolaren baitako erabileran duen eragina”.

Irakasleen erabilera beraien artean da analisisetan nabarmentzen den beste aldagai bat, bi ikasmailetan. Ikastetxeko hizkuntza-giroaren islatzat har liteke aldagai hori, eta ikastetxe bakoitzean euskara era berezia zaintzen den ala ez erakutsiko luke. Aldagai honen loturak “agerian uzten du hizkuntza-ereduen bitartez ez ezik, eskolak badituela beste aukera batzuk ikasleen hizkuntza-portaeran eragiteko”.

Hala ere, analisisetan aztertu diren aldagai gehienek badute lotura *Ikasleen eskolako erabilera orokorra*-rekin baina denek ez maila berean. Lotura horietako asko sendoak dira: *Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatue-*

Hizkuntza-ereduen bitartez ez ezik, eskolak baditu beste aukera batzuk ikasleen hizkuntza-portaeran eragiteko, esaterako, irakasleen arteko hizkuntza-baldintzak zainduz

Eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan eta komunikabide eta kultura-kontsumoan interbenitzeko aukera aipatzen du ikerketak, euskararen aldeko baldintzak sortzeko

tan, Erabilera lagunekin txateatzan (DBH2n), *Hizkuntza-eredua, Etxeko erabilera* edota *Komunikabide eta kultur kontsumoa*. Aldiz, ikasleen *Errendimendu akademikoa*-rekin edota beren *Maila sozioekonomikoa*-rekin dauden loturak askoz ahulagoak dira.

Ikasleak hizkuntza-ereduaren arabera berezita, aldagaien pisua ez da berdina hiru ereduetan. B ereduko ikasleen artean, bi ikasmailatan garrantzia handiagoa du *Hitz egiteko erraztasun erlatiboa*-k, *Atxikimendua euskara-gaztelania* aldagaia baino. D ereduaren alderantziz gertatzen da, atxikimendua edo motibazioak pisu nabarmenagoa

du. “Horrek adierazten digu euskarazko gutxieneko gaitasun bat lortu ezean (A eta B ereduetan sarri gertatzen den bezala) erabilera trinkoetara iristea ezinezko dela”, dio txostenak.

Erabilera areagotzeari begira

Arrue azterketako egileen iritziz, aldagai hauek erakusten dute badaudela ikasleen eskolako euskararen erabilera areagotu ahal izateko “kontuan har daitezkeen interbentzio aukera batzuk, ezaguna zitzagun hizkuntza-ereduen eraginetik harago”. Txostenak interbentzio eremu “nagusienak” aipatzen ditu. Batetik, *Erabilera eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan* eremuan, “euskararentzako baldintza aldekoagoak sortu eta hedatzea, bi mailatan ulerturik: egunero ingurune hurbiletan euskarazko erabilerarako aukera errealki gehitzea, zein gizarteko erreferente diren pertsonengan euskarazko jokoerak hedatuago egotea”.

Bestetik, *Komunikabide eta kultur kontsumoa* aldagaia analisisetan duen pisuak (batez ere, A eta B ereduetan) “gizarte/familia ingurunearen garrantzia agerian jarri du”. Hirugarrenik, ikastetxean bertan ere badago euskararen erabilera areagotzeko aukera gehiago, Arrue ikerketako egileen iritziz, “adibidez, irakasleen eta gainerako kideen arteko hizkuntza-baldintzak zainduz eta erabilera bultzatuz”.

Eskolako erabilera areagotzeko ahaleginetan bereziki landu litezkeen beste arlotako batzuk honako hauek dira: B ereduko ikasleengan, euskarazko gaitasuna, eta D ereduko ikasleei dagokienez, interbentziorako alor zaila den familia-aldagaien pisu handia dute beren hizkuntza-portaeran, eta hortaz, “eskolan euskaraz apur bat egitearen funtsa batez ere ingurune hurbilak (eskolakoak, familiakoak) zein orokorrak (herrikoak) eskaintzen dituzten baldintzen mende dago”, dio txostenak.

Txosten osoa deskargatzeko:

<http://www.soziolinguistika.org/>

mikel zalbide



Argazkiak: Argazki Press

ELKARRIZKETA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Euskara Zerbitzuaren burua

“Adin batetik aurrera, eskolatik kanpora, ingurumen-baldintzetan dago ikasleen euskara-erabileraren giltzarria”

Ikasketaz industria-ingeniaria baina ogibidez hizkuntzalari eta soziolinguista da Mikel Zalbide (Donostia, 1951). Elhuyar elkartearen sortzaileetako izan zen 70eko hamarkadan, eta ondoren UZEIko zientzia-tekniken alorreko hiztegitintza teknikoaren arduraduna izan zen. Euskaltzain urgazle izendatu zuten 1983an, eta urte batzuk geroago euskaltzain oso. Euskaltzaindiak Euskararen Historia Soziala aztertzeke sorturiko Joanes Etxeberria egitasmoko zuzendaria da. Bestalde, Eusko Jaurilaritzako Euskara Zerbitzuaren burua da, eta Arrue proiektuaren sustatzaileetako bat izan da bere sorreratik. Ikasleen hizkuntza-erabilerak neurtzeko egindako Ebaluazio Diagnostikoaren emaitzak izan ditugu hizpide elkarrizketan, euskara eta eskolarekin loturiko beste hainbat konturekin batera: Euskararen legea -hari buruzko liburu bat idatzia du Zalbidek, 'Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa' (Jagon Saila)-, hizkuntzaren ezagueran eta transmisioan eskolak jokatzen duen zeregina, hizkuntza-ereduak, edota hizkuntza ahulak indarberritzeko mundu zabalean garaturiko estrategiak.



Euskararen Erabilera Normaltzeko Legearen mende-laurdeneko ibilbide honetan, eskolaren esparruko hizkuntza normalizazioari dagokionez, zein dira eskuratu diren lorpen nabarmenenak? Eta zertan egin da huts?

Liburuan esanak dauzkat zehatz-mehatz, eta han irakur ditzake horren interes-gogoa duenak. Labur bilduz, honako hauek datozkit gogora: a) seme-alabek euskaraz ikas dezaten nahi duten gurasoek gero eta neurri zabalagoan daukate eskubide hori bermatua; erabateko iraultza da hori, Euskal Herriaren azken bostehun urteetako bilakaera soziokulturalaren eta eskolatzemako nagusiaren nondik norakoa kontuan izanik; b) eskubide hori bermatzeko beharrezko baliabideak eratu eta aplikatu izana: euskaraz irakasteko gai diren irakasleak; edukiz, hizkuntza-tratueraz, prezioz eta kopuruz (konparatiboki) egokiak diren ikasmaterialeen sorkuntza, produkzioa eta zabalkundea; irakas-sistema osoaren hizkuntza-irizpidearen araberako antolamendua eta abar; c) etxetik erdaldu diren ikasleei (belaunaldi osoaren %80 ingururi) aski dibertsoa den baina kasu gehienetan oso nekez hutsaren hurrengotzat har litekeen euskararen ezaguera-maila eskuratu izana; eta d) etxetik euskaldun edo elebidun diren ikasleei (populazioaren %20 ingururi) euskararen errejistro formal-idatziaren ezagutza ohargarria eskaini izana. Huts-egiteak ez dira, era berean, gutxietakoak. Bat bakarra aipatzekotan, curriculumaren

euskal dimentsioari arauz eta xedez zor zaion atentzioa behar adinako neurrian eskaini ez izana azpimarratuko nuke.

Eskolari aitortzen diozu hiztun gazteen ugaritzea, baina gazte horiek euskaraz jarduteko gaitasun-maila mugatua dutela diozu, euskaraz "nolabait" dakiten neska-mutilak eta gazteak ugaritu direla idatzi zenuen Euskararen legeak hogeita bost urte bete zitueneko liburuan. Zer dela-eta gertatzen da hori? Nola hobetu lezake eskolak gazteen hizkuntza-gaitasuna?

Gai zabal eta sakona da hori, eta elkarrizketa baten markotik kanpora ateratzen da hortaz, baina futbol-zelai horren lau "corner"-izkinak seinatzen bederen saia gaitezke gain-gainetik. Horrela,

a) Eskola-sistema ez da, ez hemen eta ez inon, "euskaltegi" (edo, berdin du, "ingelestegi") bat. Ez da, eta ezin liteke izan, belaunaldi bateko neska-mutilen %80 etxetik piperrik ez dakien L2 hizkuntza batez jabetzeko lekua. Hori (L2 bat edo gehiago irakastea) baino eginbehar zabalagoak ditu berez eskola-sistema orok eta, aldi berean, L2 bat edo gehiagoz jabetzea (jabetzea, ez ikasten jardutea) eskola-esparruaz haratago eginbeharra izan ohi da berez.

b) L2 eskuratzeko mekanismo sozialak, estatistikoki adierazgarriak, gutxitan izan ohi dira eskola bidezko ikasketa hutsean oinarrituak. Bigarren mundu-gerraren ondoko hamarkadetan lan bila Alemaniara joan ziren milioika espainiarrek, italiarrek, greziarrek eta abarrek ez zuten Alemaniara joan eta lehenengo hiruzpalau urteak alemandegi batean L2 hori ikasten jardun, eta gero bertako lan-merkatuara jauzi egin. Kontuak ez dira horrela, urrundik ere. Benetako aleman-mundu praktikora jauzi egin zuten eta bertan bizi diren gehienak (halako askotxo ezagutzen dut pertsonalki) aleman-hiztun aktibo dira gaur egun (nahiz eta, hori bai, azentuz eta hitz-etorritz, errejistro-mailaz eta zuzentasun-irizpidez "berta-bertakoak ez direla" antzematen zaien). Eskolarik gabe alemandu dira milioika etorkin haietariko

mikel zalbide



“Euskaraz
“nolabait” dakiten
neska-mutilak ugaritu
ditu eskola-sistemak;
aurrerapauso
nabarmena da, baina
ezin da magnifikatu

”

“Gizarte-
ingurumen multipolar
batean aplikatu beharko
da, gero ere, irakasleen
euskarazko gaitasun-
hobetze lana

”

gehien-gehienak, eta aleman garbi dira hurrengo belaunaldiko asko. Gauza bera gertatu izan da bestelako migrazio-joaira handi askorekin, ez guztiakin, bai European eta bai gainerako kontinenteetan.

c) Euskaraz “nolabait” dakiten neska-mutilak eta gazteak ugaritu ditu eskola-sistemak, egia da. Lorpen hori, bere herren guztiakin ere, aurrerapauso nabarmena da. Nabarmena baina, era berean, oinak lurrean izan nahi baditugu magnifikatu ezin dena. Hutsegite argia da nire ustez, eta luzera kaltegarri, bai eskolari ematen duena baino askoz gehiago eskatu nahi izatea eta bai, kontrako muturrera joanaz, neska-mutil horiek benetan duten baino gaitasun-maila handiagoaz horniturik daudela esatea. Eta

d) *Nola hobetu lezake eskolak gazteen hizkuntza-gaitasuna? Horrek bobetuko al lituzke erabilera-datuak?* Ez dago dudarik ikasleen hizkuntza-gaitasun hobekia hobetu egin ditzakeela, gainerako ingurumen-baldintzak berdin mantentzen badira, euskaraz jarduteko aukerak. Ez da egia, ordea, L2ren eskuratzeko eta erabiltzeko prozesu errealean eta demografikoki adierazgarri gehienak “lehenik ikasi, gero erabili” paradigmaten arabera hezurramitzen direnik. Pedalei emanez ikasten da bizikletan ibiltzen, ez alderantziz. Deskuido handia daukagu hor: euskal eskolaren 40 urteko historiak badirudi oinarri-oinarrizko egia hori ez digula oraindik erakutsi.

Irakasleen artean ere euskaraz baino gaztelaniaz erosoago aritzen diren irakasleen kopurua nabarmendu duzu eta askok euskal kulturaz duten ezagutza falta. Arrue proiektuak ere irakasleen arteko erabilera aipatzen du eskolak interbenitu dezakeen eremuen artean. Ez al da aski egiten irakasleen formazioan eta motibazioan? Edo irakasleak ez ote dira aski jabetzen hizkuntzaren transmisioan jokatzeko duten rolaz?

Alor guztietan dago zer hobetu, eta horretan ere bai. Sistema publikoan, orain dela 35 bat urte, “euskaraz (zerbait)

bazekitela” aitortzen zuten lehen mailako irakasleak ez ziren %5era iristen. %85etik gora dira orain. Hezkuntza-alorrean egin den jauzi horrek ez du parekorik, ez eta laurdeneorik ere, gizarte-bizitzaren beste esparruetan: ez esparru formal-publikoetan, ez lan-merkatuan eta ez gizajendearen ordu-kopuru zabala eta sentimen-ilusio-gorroto-maitasun gehienak bereganatzen dituzten gainerako esparru informalekoetan ere. 35 urteotan hezkuntza-alorreko profesionalen euskalduntze- edo alfabetatze-kontuan egin den kantitatezko hazkunde sakon horrek lehentasun erabatekoa izan du hamarkadotan, beharrak hartaraturik edota irakasle askoren berezko gogoa eraginik. Bada ordua, nire ustez, kalitateari ere dagokion garrantzia aitortzeko eta, hitz hutsetan geratu gabe, aplikazio praktikoa ere horren arabera jokatzeko.

Kontu handiz ibili beharko da hor, ordea, kolpe huts egin nahi ez bada. Lan-esparruaz gainera beren bizitza familiar, hiritar eta pertsonal aberatsa duten gizakiak dira irakasleak, eta guztia ez dute (zenbaitetan ezin dute, besteetan ez dute nahi) euskalduntze edo euskarazko hobetze-programen jira-bueltan antolatzen. Hori baino aberatsagoa da gizarte-bizitza, eta aberastasun horren galeran nekez ateratzeko prest izango dira. Beste hitzetan esanik, gizarte-ingurumen multipolar batean aplikatu beharko da, gero ere, irakasleen euskarazko gaitasun-hobetze lana. Espero eta desio izatekoa da unibertsitate-munduak, aurrekoan ez bezala, parte-hartze zabala eskuratuko duela orainoan, irakasle-gai prestatuak (eduki akademikoez gainera hizkuntzaz, soziokulturaz eta soziolinguistikaz egoki prestatuak) hezkuntza-merkatura bideratzeko orduan.

Eskolaren mugak eta indarguneak agerian utzi ditu Arrue proiektuak. Indarguneen artean, beste jardun-gune gehienetan baino gehiago erabiltzen dela eskolan euskara. Nola irakurri dituzu datu horiek?

Aztartzaile eta interesatu gehienek



irakurri dituzten moduan. Alde biko (argi-itzaletzeko, gazi-gezako) balioespenez alegia. Alde batetik, euskararen gotorlekua da gaur egun eskola, termino konparatiboetan (eskuartean dugun analisirako balio duen bakarrean) hitz eginik. Ez dago beste jardun-gunerik, egungo egunean, adin-tarte jakineko hainbat hiztun euskararekiko kontaktuan jartzen duenik egunik egun, asterik aste, urtea joan eta urtea etorri. Aurrerapauso handia da hori, azken mendeotan ezagutu dugunik handiena, bere zertzelada eta ñabardura (arin eta larri) guztiekin.

Bere ifrentzua du ordea gertaera pozgarri horrek, gizarte-bizitzako beste hainbatek bezala. Hasteko, aurrerapauso hori selektiboa da eragimenez: errazago lortzen da ikasleek (normalean irakasleari) euskaraz entzundakoa hainbatean ulertzen eta (irakasleak edo testu-liburuek euskara batuan emandako testu formal-espositiboak) irakurtzen ikastea, beren gogo-nahiak edo asmo-beharrak asetzeko

euskaraz ondo idazten eta txukun hitz egiten dakiten gazteak lortzea baino. Bigarrenik, pauso hori zapuztu egin liteke, eta halaxe egiten da sarri, eskola-urteetan edo harrez gero eskolan eskuratutako trebetasun horiek handik kanpora (sozialki baliagarri eta norberaren atsedeen-iturri diren solaskidetzaharremanetan) aplikatu, sendotu eta garatzeko ingurumen-baldintzak gertatzen ez badira. Ingurumen-baldintzetan dago giltzarria: hots, eskola-umeen adin batetik aurrera eskolatik kanpora.

Haatik, “eskolak ezin du hizkuntza ahularen prozesu osoaren ‘primum mobile’ izan. Eskolaren hizkuntzagaraipea edo –porrota ez dago eskolan bertan: eskolatik kanpora dago hori, nagusiki. Hori da ententitu eta onartzea izugarri kostatzen zaiguna”, idatzi duzu. Zeri zor zaio horretaz jabetzeko zailtasuna?

Motibo askotxori zor zaio zailtasun hori. Batetik, lehen esan bezala Ilustrazio garaiko ikuspegi eskola-zentriko hartan kokaturik (kokaturik eta, irakaskuntzako profesional garen neurrian, gure zentraltasun ustezko horretaz harro) gaudelako. Nori ez zaio gustatzen gizarte-bizitzaren panorama globalean, batez ere gizarte-aldakuntzaren perspektiba dinamikoan, leku seinalean egotea? Eskerronezko auto-asignazio sozial horrek askotxo du, ordea, duda-mudazko edo indargabe. Gu guztion irudi korporatibo eskerronezko horrek leporatzen digun karga astun horretaz libratzea ez da batere gauza erraza. Bestetik, mintzajardunaren giza arteko moldaeraz (nahiago bada: hizkuntza-soziologiaz) dugun ezagutza teorikoa harrigarri apala delako eta ebidentzia enpirikoen konstelazio seguru-antzekoenetik tamalez urruti dagoelako. Ez dago behar bezalako orekarik, batetik “euskararen alde hau edo hori” egiteko

mikel zalbide



“Nork esan du euskarazko kultura-kontsumoak idatzizkoa izan behar duela nagusiki, eta ez ezpain-belarrien bidezkoa?”

“Ereduen ordezkoko formula hobea besapean duela uste duenak erakutsi beharko luke bere formula horren hobekuntza zertan datzan”

agertzen dugun delibero sendoaren eta bestetik “hau edo hori egite” horrek ezinbestean dituen lorpen-aukera diferentziaz, kostu (afektibo, ekonomiko eta biografiko) nabariez eta indarberritzeko saioari eskain diezaiokeen kontribuzio berekasakoaz dugun informazio kontrastatuaren artean. Bigarrena lehenengoa baino nabarmenki txikiagoa da ia beti. Aspaldi konturatu zen desoreka sakon horretaz kanpoko soziolinguista aditu ezaguna.

Etena gertatzen da eskolako eta kultura-kontsumoko hizkuntza-hautuaren artean. Beste hizkuntza batzuetan kontsumitzen dute kultura haurrek eta gaztetxoek, eta horrek zuzenean eragiten du beraien hizkuntza-erabileran. Eskolatik nola eragin liteke kultura-kontsumoa euskaraz izan dadin?

Lehenik eta behin, eten horren handiaz eta (euskalgintzaren ikuspegitik, ez beste zenbaitetatik) larriaz jabeturik egon behar genuke hizkuntza/hezkuntza alorreko arduradun teknikoak. Ez dakit noraino diren kontu horiek horrela. Bigarrenik, orain arteko gure “hamar mandamentuei” begiratu zorrotza eman behar genieke, eta errealitatearekin nekez ezkontzen ez den printzipio-hatsarre (ustez) ukituezina hatsarreen esparrutik aldendu, eguneroko gertakarien benetako izaeratik hurbilago dauden proposamen-irizpideak hobetsiz. Nork esan du euskarazko kultura-kontsumoak idatzizkoa izan behar duela nagusiki, eta ez ezpain-belarrien bidezkoa? Zergatik liburuen, aldizkarien eta testu idatzi formalen orbitan jira-arazi behar da gazte-jendearentzako kultura-eskaintza gehiena, bestelako aukerak (ipuin eta txiste, antzezpen eta kantu, jendaurreko norgehiagoka eta abarrekoak) bigarren planora eramanez? Zergatik gazte-jendearen parte-hartze jasotzaile-pasiboa, ez interakziozkoa, dakarten kultura-produktuak lehenetsi? Zergatik hizkera formal-batuan, estiloz elaboratu eta terminologiaz landuenetan, zentratu behar da eskaintza gehiena, jendarteko eta lagunarteko (kultura-kontsumoaren *locus communis* nagusiko)

mintzamoldeetatik (hizkuntzaren errejistro informaletatik edo euskalki-kutsuko mintzamoldeetatik) nabarmen(egi) urrunduz? Mandamentu-berritze horiek ezin dute hizkuntza nagusiaren eta kontestualki ahularen desoreka osoa, urrundik ere, berdindu. Oraingo desoreka zorrotza leuntzeko baliagarri izan litezke orde. Merezki du, beraz, kontuan har ditzagun.

Curriculumari euskal dimentsioa txertatu behar zaiola idatzi duzu. Nola eragin liteke curriculumean euskara promozionatzeko?

Galdera bi dira horiek eta, labur-labur izango bada ere, erantzun bi emango dizkizut. Gatozen lehenengora. Bai, curriculumaren euskal dimentsioa eginkizun nagusietako bat du gure irakas-sistemak. Hala uste izango ez banu ere, berdintsu luke: legez gure Erkidegoak garatu beharrekoa da curriculum osoaren zati ohargarria (berdintsu du kontu honetarako, berdin-berdin ez duen arren, zati hori curriculum-tarta osoaren % 45 den Erkidegoak garatu beharrekoa, % 40 edo dena delakoa). Inoiz (kanpoko?) unibertsitateko adituek eginiko azterketa batean zera agertu zen hain aspaldi ez dela: % 10era ez zela iristen (buruz ari naiz zerbakiarekin, baina ez dut uste oso urrun nabilenik) gure ikasleen ikasmaterial idatzietan euskal dimentsio horren orbitapera ekar zitekeena. Norberak atera bitza kontuak, hortik aurrera.

Gatozen bigarren kontura: nola eragin liteke curriculumean euskara promozionatzeko? Segun *promozionatze* hitzarekin zer adierazi nahi duzun. Gero eta ikasle gehiagok gero eta ikaskide (eta, eskolatik kanpora, gero eta solaskide) gehiagorekin euskaraz jardutea adierazi nahi baduzu (hots, euskalgintza kontzeptuaren muintetik gehiegi aldendu nahi ez baduzu), bistan da mesedegarri izan litekeela euskal dimentsioa eskola-curriculumean orain arte baino sendoago txertatzea. Gure etnizitatearen, gure herri-izatearen eta herri-gogoaren zantzu nagusi asko kulturalki jantzirik iritsi zaizkigu aurrekoengandik, eta kultura-

osagai horien eskola-esparruko trataera integratua lagungarri sendoa izan liteke euskara, etxetik eta auzo-bizitza arruntetik euskal *feed-back* ohargarririk ez duen ikasle askoren begietan, eguneko hainbat orduz (oraindik n urtez) esperimentatu beharreko asignatura “erdi-maria” deskontestualizatua gerta ez dadin eta euskarazko asignaturak gelaz kanpoko astialditik, lan-mundutik eta gizarte-bizitza kolektibotik zeharo aldendutako fenomeno esperimentalaren ninbotik zintzilik lozorro gozo-mikatzean gera ez dadin. Gatza eta piperra eskain dezake curriculumaren euskal dimentsioak.

Arriskurik ere badu, jakina, dimentsio hori irakasleen eguneroko jardunean

txertatzeak. Profesional onak, hartarako trebatuak, behar dira batetik. Euskal dimentsio hori gainerako dimentsioekin (espainolarekin, iparraldean frantsesarekin; europarrarekin; unibertsalarekin) egoki txertatu eta integratu behar da. Lan zail eta delikatua da hori. Nork esan du, ordea, erraztasunetik (utz dezagun errazkeriatik) datorrenik hobekuntza-bidea?

Ereduena gainditu beharreko modeloa dela diote hezkuntzako eragile askok. Zuk ordea, eredeuei eutsi behar zaiela diozu, hoberik asmatzen eta adosten ez den bitartean. Nola hobetu litezke ereduak?



Eguneroko jardunaz. Jarduera profesional beteaz, hobekuntza kontrastatu eta metakorretan (ez aldi behingo baieztapen nolahalakoetan) oinarrituaz. Geure burua engainatzeko joko nekagarria da gainerako, lautatik hirutan. Aski joko interesatua, maiz asko bestelako xede-helburuen estalgarri erabili ohi dena. Ez dut aparteko interesik joko triste horretan parte hartzeko. Ondo diozunez, hoberik asmatzen eta adosten ez den bitartean eredu-markoari eutsi behar zaiola uste dut nik. Ordezko formula hobe besapean duela uste duenak, ez gainerakook, erakutsi beharko luke bere formula horren hobekuntza zertan datzan. Hobekuntza orok, esan beharrik ez dago, lau alorretako osagarriak behar ditu berekin; egungo (edo begien bistako etorkizuneko) lege-markoarekin bateragarria izan behar du; termino psikopedagogikoetan bideragarri eta ikasleen garapen kognitiboaren zein hizkuntza-gaitasuna hobetzearen aldetik, etekin-iturri positibo izan behar du; perspektiba soziologikotik onargarri eta gizarte-tentsio zorrotzenen aringarri (ez are zorrotzagoen pizgarri) izan behar du, eta termino operatiboetan (baliabide humanoen, materialen eta organizatiboaren aldetik) egingarri izan behar du. Hori lortzeko lain dela erakusten ez duen “hobekuntza” ez dut uste zinezko hobekuntza denik. “Lege on, behin betiko”-aren miresle itsu ez garenontzat, berde dago oso eredu-markoa “gainditurik” dagoeneko formulazioa. Agintarien eskumen izan ohi da legeberritzea, eta ongien deritzena egingo dute han-hemengo agintarietarako horretaz. Ez nik hartara bultzaturik, orain arte baino motibo sendoagorik erakusten ez zaidan artean.

Jeroen Darquennes belgikarrak euskara “inklusio-hizkuntza gisa” aztertze gomendioa eman zuen Soziolinguistika Jardunaldian. Zure ustez beharrezkoa al da horri buruz hausnartzea?

Bai, halaxe da. Europako hizkuntza-soziologiaren panorama unibertsitario nahi baino erkinduagoan itxaropenezko “izar berria” dugu Jeroen Darquennes

mikel zalbide



**“Belaunez
belauneko mintza-katea
eten ez dadin zaintzea
eskolaz kanpoko
agenteen eginkizuna da,
lehenik eta behin.
Horien lagungarri
aproposa da
eskola”**

**“Jarduera
zentroan jarriko duen
paradigma indartu eta
zabaldu beharra
daukagu”**

belgikarra, merezimendu osoz. Bere ekarpenen berri duenak badaki zenbateraino duen hizkuntza-soziologo gazteak hizkuntzen, hiztunen eta hiztun-elkarteen gizarte-dimentsioaren ikuspegi zabal eta pluridisziplinarra. Perspektiba horretatik planteatua iruditzen zait Kursaal-en eskaini digun “inklusio-hizkuntza” kontzeptua bera.

Eskolaren bidez transmisio-segurtasuna bermatu liteke ala beste esparru batzuk zaindu eta landu behar dira? Zein eta nola?

Erantzuna gutxitan izaten da erabat “zuri” ala “beltz”. Kasu honetan, ordea, bai: ahuldutako hizkuntza baten belaunez belauneko transmisioa ezinean dagoenean edo nabarmen hautsi denean, eskola ez da gai izaten, bere hutsez eta bere baitarik, hizkuntzaren transmisio-etena berrosatu eta belaunez belauneko jarraipen-bidea bermatzeko. Transmisio-segurtasuna ezin da eskola-bide hutsez berregin. Funtsezko zeregina du eskolak (hala izan dezake, behintzat, gauzak ondo antolatzen badira), Fishman-en BAEN eskalaren 6. (eta beheagoko) puntua(k) bermatzeko orduan. Lagungarri apropos eta ohargarria izan liteke ahuldutako hizkuntza indarberritzeko saio horretan. Belaunez belauneko mintza-katea eten ez dadin zaintzea eta bermatzea (zer esanik ez, kate hori eten egin den kasuetan, behinolako hizkuntza arrunt izandakoa bertakotzea edo “revernacular”-izatzeta) eskolaz kanpoko agenteen, jardun-guneen eta interakzio-sareen eginkizuna da ordea, lehenik eta behin. Horien lagungarri aproposa da eskola. Agente-eragile horien, jardun-gune horien eta interakzio-sare basiko horien ordainetako sendagai aldrebesa da eskola.

Jarduera, gaitasunaren orde, zentroan izango duen paradigma berria aldarrikatzen duzu. Motibazioa-ikasi-erabili logika baztertu, eta jardun ahala hizkuntza ikasi. Paradigma aldaketa horrek zein egokitzapen ekarri beharko lituzke orain arteko euskalduntze estrategian?

Bai, paradigma hori indartu eta zabaldu beharra daukagu. Lehen tasun handiko

beharra da hori. Antolatzen ditugun ekimenek eta hartarako xahutzen ditugun baliabideek (gure dedikazioa eta esfortzua, denbora, dirua, ilusioa) etekin-iturri izan behar dute: jende (kasu honetan, demagun, ikasle) gehiagok, denbora gehiagoz eta solaskide gehiagorekin, solasgai gehiagoz ahal delarik, euskaraz jarduten lagundu behar dute. Hori da paradigma-aldaketaren algodoi-proba basikoa, hiztun jakinen hizkuntzazko gaitasun-trebezien eta eskuratze-tekniken izenean bigarren plano batera eramaten inola ere utzi behar ez dena. Lan zaila da hori, baina ezinbestekoa. Horretan jokatu da, ez dut inolako dudarik, hurrengo hogeiberrogei urteko euskalgintzaren gorabidea edo (agian betiko) porrota.

Eskolako eremutik ateraz, nola esplikatu liteke euskaraz harreman sareetan eta situazio komunikatiboetan azken mende laurdenean izan duen ahultzea?

Gizarte-berrikuntzaren alor nagusietako joan-etorriak balantze negatiboa ekarri dute, bere osoan hartuta. Eskola-munduko gorabidea ez da prozesu jeneralaren norabide berean joan, erritmo diferentekoa izateaz gainera. Gure gizarteak azken mende-laurdenean bizi izandako transformazio demografiko, ekonotekniko, politikoko-operatibo eta soziokultural sakonek ekarri dute balantze global ezezkor hori. Hogeita bost urteko liburuan halako xehetasun batez esplikaturik dut transformazio horietariko bakoitzaren izaria, nondik norakoa eta lastertasuna. Kontu horien berri izan nahi duenak hara jo dezake, besterik ezean, aski konplexua den fenomeno-kluster horren berri zehatzagoa eskuratzeko. Klabe guztiak ez daude han, baina hurbilketa-saio baterako elementurik badela esango nuke. Orain bost bat urte esandakoak zutik dirau orain ere, tartean elementu berriak burua jasotzen hasi diren arren.

Mundu zabalean, tokian tokiko hizkuntza txiki-ahula indaberritu eta osasun onera ekartzeko, zein esparrutan eragin dute?

Kasu gehienetan, gure modura jardun izan dute oro har; hala egiten dute, batez bestean, orain ere. Labur bilduz, a) ahal duten (ez, ezinbestean, nahi luketen) esparruetan eragin dute lehenik eta behin. Ez esparru hori(ek) hoberena(k) eta eragingarriena(k) d(ir)ela uste dutelako, esparru hori(ek) lantzea baino aukera hoberik ez daukatela iruditzen zaielako baizik. b) Esparru batean baino gehiagotan eragiteko aukera ohargarria (izan) duten kasuetan, eskola-munduan eragin dute maizenik. Eskola da, dakigun neurrian, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko saioetan han eta hemen sarrienik aukeratu izan den ekintza-esparru zentrala. Ez dago zertan harritu: zenbaitek besterik uste badu ere jende modernoa, aldian aldiko *Weltanschauung* nagusiaren mendekoa hortaz, gara funtsean. Gizartegintzaren alorreko lehenitasun-eskemetan islatzen da gure modernotasun hori. Eskola dugu europarrok, Absolutismo Ilustratuaren garaitik hasita gutxienez, (ustezko edo benetako) gizarte-gaitz gehienen botikagai erabiliena. Badakigu zergatik: luze-zabal eta epealdi ohargarritz erabil daitekeelako⁽²⁾ eta eskola-mezuaren jasotzaile eta hartzaile belaunaldi gaztea, bihar etziko gizarte-ore primarioa, bertan dugularik hartan inpaktatuz egungo miseriak biharko gozamen kolektibo bihurtzeko promesak sendo erakartzen gaituelako. Filosofia sozio-educatibo ilustratu horrek erakutsia du, aspertzera, bere promesaren lausoa, mugatua eta alde askotatik faltsua. XX. mendearen bigarren erdialdeko hezkuntza-soziologoek aspertzera erakutsi digute hori. Alferrik ordea, itxuraz: irakaskuntzako profesionalen oihua, “yes, we can” burrundatsua, ozen eta airoski dabil han-hemengo gizarteetan, hezkuntza-administrazioen aginte-organo gorenetatik hasi eta azken-azkeneko eskola-otsein otxan eta isil-baketsueneraino.

Besterik litzateke kontua, erabat besterik noski, galdera honela egin izan bazenit: “Mundu zabalean, tokian tokiko hizkuntza txiki-ahula indarberritu eta osasun onera ekartzeko egin diren eta arrakasta argia lortu duten saioen artean, zein



esparrutan eragin dute?” Galdera horrek beste galdera batetik hasia eskatuko liguke: hizkuntza txiki-ahula indarberritu eta osasun onera ekartzeko egin diren saioen artean non daude, eta zein dira, arrakasta argia lortu dutenak? Galdera horri erantzuteko ez dago ehunka kasu aipatzen hasi beharrik. Nahita ere ez legoke halakorik egiterik: ez daude ehunka kasu, azken (demagun) 150 urtean, beren hizkuntza txiki-ahula indarberritu eta osasun onera ekartzeko orduan arrakasta argia lortu dutenak. Funtsean hiru norabidetan apuntatu beharko genuke, erantzun sintetiko itxurazkoa ematen saiatu nahi bada:

a) XIX. mendetik aurrera ordura arteko diglosia-egoera jakina (bertako hizkuntza txiki-ahula L status-era mugaturik zuena) hautsi eta (L hizkuntza horren belaunez belauneko transmisio naturala luze-zabal segurtaturik zeukatenez oro har) gehienetan (ez beti: Suitza, Belgika,..) soberania territorialeko beregaintasun politikoaren laguntzaz egindako indarberritze-saioak. Horrelako prozesu soziokultural eta soziopolitikoaren adibide ditugu, kasuan kasuko zertzelada nabarmenez, Finlandia, Txekia (orobat,

partez, Eslovakia) eta, kasu berriagoetara etorritik, Herrialde Baltikoak (batez ere Estonia) eta Jugoslavia-ohiko zenbait herrialde beregain. Enfasi handia (eta aparteko saio antolatua) eskaini izan diote herrialde horiek, beregaintasun politikoa izan aurretik (eta, zer esanik ez, eskuratu ondoren) eskola-munduko indarberritze etnokultural eta linguistikoari. Gauza bat izan behar da ordea, kasu horietan guztietan, kontuan: etxea, auzoa, lagunartea eta kale-bizitza arrunta kontrolpean zeukatzen konstelazio etnokultural horiek, aski neurri zabalean. Etxeak eta kaleak emandakoa osatzera, aberastera eta duintzera etorri da eskola, nagusiki, kasu horietan.

b) Ez H eta ez L, kanpotik berrezarritako herri-hizkuntza⁽³⁾ baizik. Israelgo hebraiera modernoa dugu adibide kasik bakar eta, edozein kasutan hoberena. Bertako *revernacularization process* delakoak zerikusi txikia du, oro har, aurreko pasartean aipatu diren kasuekin eta, jendea konturatzen ez bada ere, askoz hurbilago dago zenbait alorretatik euskaldunok (euskara belaunez belauneko perspektiban bizirik aterako bada) eginkizun dugun lanbidearekin. Gauza

mikel zalbide

E

“Eskola dugu europarrok, Absolutismo Ilustratuaren garaitik hasita gutxienez, gizarte-gaitz gehien botikagai erabiliena”

“Eskolak funtsezko helburuak ditu egin behar globalago batean, baina ezinbestekoa da bere muga-baldintzez jakitun izatea”

bat zen (eta halaxe da orain ere) etxean eta auzoan, kalean eta lantegian (behe-mailan eta hitzezko interakzio informalean bederen) bizi-bizirik dagoen L hizkuntza H estatus-era jasotzea, eta beste bat liburuetan, aditu batzuen praktika sakro-klasiko irakur-idatzizkoan eta jendaurreko erabilera erlijio-errituzkoan⁽⁴⁾ presentzia mugatua duen hizkera bati eguneroko hizkuntza arrunta, (etxe-auzo-kale-lantegi-astialdi)-etako hizkera bizi, arrunt, gatz-piperdun bihurtzea. Hori lortzea eta lorpen harrigarri horrek belaunez belaur aurrera jarraitzeko oinarri-bermea eskuratzea, gizartean (edo gizarte atal jakinetan) oro har. Komeni da gogoraraztea, gehiegitan ahaztu ohi baitugu, Israelgo sekuentzia ez dela izan “lehenik independentzia politikoa eta gero beren hizkuntza propioa indarberritzea⁽⁵⁾”, alderantziz baizik. Hebraiera modernoa etxekoturik edo bertakoturik⁽⁶⁾ zegoen nagusiki⁽⁷⁾, hainbat adituren esanean, 1948an Israelgo estatu beregaina sortu aurretik⁽⁸⁾. Badirudi eskola hutsaz haraindiko (parte on batez, eskola jardunaz aparteko) saioak ekarri zuela hebraieraren biziberritzea eta belaunez belauneko transmisio-bermea aktibatzea.

c) Afrikako merkatari-hizkerak: batez ere Afrika ekialdeko *swahili*-a, gero nazio-hizkuntzaren estatus-era iritsia. Bistan da XX. mendeko gizarte-aldakuntza bortitzen altzoan, bai kolonia-garaian eta bai (bereziki) kolonizazio ondoan, *language spread* eta gero, partez edo osoz, *language shift* fenomenoaren iturburuetariko nagusi izan direla. Lan-giroaren moldaera supraetnikoak eta luze-zabaleko merkataritzaren sare berriek aparteko eragina izanik dute, antza, kasu honetan. *Swahili*-aren zabalkunde-iturri nagusia lan-mundu eta merkatu-sare berri horien altzoan (lan-antolaera eta merkatu-sare berri horiek eragindako migrazio eta asentamendu interetniko bortitzez) kokatu izan du zenbait adituk, eskolaren lekua oso bigarren postura alboratuz (hasierako transformazio-aldi gogorrean bederen). Horrek guztiak, labur bilduz, eskolaren lekua eta eragimena zehaztera eraman behar gaitu guztiok, kaletar soil zein aditu. Behar-beharrezkoa da eskola, gure hizkuntzak bizirik iraun dezan nahi baldin

badugu. Funtsezko xede-helburuak ditu, egin behar globalago horretan. Ezinbestekoa da horretarako, ordea, bere ahalmen ukaezinez eta ezin gaudituzko muga-baldintzez ondo jakitun izatea eta horren arabera jokatzeko, slogan erraz bezain antzuak⁽⁹⁾ alde batera utziz: irakasleok eta hezkuntza-alorreko arduradun teknikoak ez gaude argitasun kontzeptual horren beharrezan txikienean.

Oin-oharrak:

- (1) Egun hauetan bertan, Euskal herriaz kanpoko (baina ez urrutiko) unibertitate baten ikerketa- eta gogoeta-gune batean, estatuko eta autonomia-erki-degoetako hezkuntza-ahalmenak nola analizatu (eta, eskuartearen dudan aurkezpen-txostenak halakorik ez badio ere espresuki, adostasun-puntu posibleak nola bilatu) nahirik lau alor horietako hiru lantzeko asmoa dute bertako eta atzerriko zenbait adituk, puntuz puntu. Ez dugu uste, aparteko mediterraneorik deskubritzen ari garenik lau alor horien ezinbestekotasuna edo konbenientzia nabarmena azpimarratzen.
- (2) Populazio “gatibu” zabala jaso ohi du, XIX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera gero eta zabalagoa, urtealdi luzez (gero eta urte gehiagoz) eta (orain gutxira arte) berekin dakartzan kostu ekonomiko ohargarrien eta (gogoz kontra bada ere) sortzen dituen edo sor ditzakeen albo-efektu kaltegarrien ondorioz kontestazio sozial nabarmenik jaso gabe. Hots, zaila da hain “erabilgarria” den populazio zabaletan era ordenatu, planifikagarrian eragin ahal izatea.
- (3) Berez, hein batean, hizkuntza-multzo bateratu eta Erdi Aroan, Europako esperientzia arras konplexu eta partez kataklismikoaren ondorioz, han-hemengo herri-hizkera nagusiekin nahastua. “Nahastu” hitzak ez du hemen, hizkuntza-soziologiaz ari garenez, gaitzespen-kutsurik txikiena.
- (4) Errezu, psalmo-kantu, bataio-hitz eta abarretan.
- (5) Hobe esan, halaxe izan baita nagusiki, “biziberritzea”. Bizirik dagoena *indarberritu* egin liteke. Hilik dagoena ez: hildakoa *biziberritu* egin behar da, berriro biziko bada.
- (6) Hots, “revernacular”-izaturik.
- (7) Estimazio konkretuenaren arabera, Israelgo estatu beregaina sortu baino hamabost bat urte lehenago.
- (8) Prozesu soziokulturalak, transformazio demografikoak eta bilakaera soziopolitikoak bateratzen dituzten azalpenak mila zoko-mokoz beterik egon ohi dira berez: gizarte-aldakuntzaren une-aldi esanguratsuak ez dira normalean “zuri ala beltz” izaten: fetxa jakin baten jirabirakoak ere ez. Honelako elkarriketa batean hala izan behar badu ere ezinbestean, sinpleegia da kontu guztia fetxa bakar batera mugatzea. Azalpen lasaiago (eta egiatik hur-bilagoko) batek kontuan hartu beharko luke, Israelgo estatuaren sorrera eta hebraiera biziberritzeko prozesua batera bildurik aztertzerakoan oso kontuan hartzekoak dira, besteak beste, 1870 ingururik aurrerako mugimendu sionista, 1917ko “Balfour-ko Adierazpena”, 1922ko Judu Agentzia Nazionala, une-aldi jakinetako etorkin-uholde nagusien eragina, Israelgo estatuaren aldeko mugimendu terroristak, Lehen Mundu Gerraren ondoren Nazio Batuen Erakundeak (hasieran “Nazioen Sozietate” zelakoak) 1918tik aurrera erakutsitako jarrera nagusia, eta abar.
- (9) Onenean *antzuak* eta, sarri, *kaltegarriak*.

Herri hezitzailea, eskola herritarra jardunaldiak



Maiatzaren 10ean eta 11n Donostian. Gonbidatu gisa, **Francesco TONUCCI** pedagogoa eta "Haurren hiria" egitasmoaren sortzaile italiarra izango da bi egunetan.

Euskal Herriko hainbat eskolatako eta herritako esperientziak aurkeztuko dira.

Nori zuzendua: irakasleei, hezitzaileei, Udaletako zinegotziei eta teknikariei (berdintasuna, euskara, lurralde antolamendua...) gurasoei, arkitektuei eta heziketan interesa duen edonori zuzendutako jardunaldiak dira.



Maiatzaren 10ean:

Heziketa ardatz duen HERRIA

- Euskal Herriko testuingurua: Lorea AGIRRE.
- Haurren hiria: Francesco TONUCCI. "Haurren hiria" proiektuaren sortzailea.
- Euskal Herriko hainbat herritan egiten ari diren esperientzien aurkezpenak.

Maiatzaren 11n:

Herrira begiratzen duen ESKOLA

- Hiri-ereduak hezkuntzan duen eragina: Koldo TELLERIA (*Hiria* kolektiboa).
- Guztientzako eskola: Francesco TONUCCI
- Euskal Herriko hainbat eskolatan egiten ari diren esperientzien aurkezpenak.

BANOA ESKOLARA



Informazioa eta izena emateko aukera apirilean izango da

www.hikhasi.com helbidean.



PARTAIDETZA:

gurekin bada, izango da (VI)



Marije APOKA,
Gotzon QUINTANA
eta Bea UGARTE

PP/I.1 tresna: parte-hartzean oinarritutako proiektua


Eskailera honen bitartez, proiektu honetan parte-hartzean oinarritutako proiektu bat eraikitzeko egingo dugun plangintza-prozesua adierazi nahi dugu. Maila bakoitzean hainbat jarduera, gogoeta, ahalegin, esperientzia etab. ageri dira, eta hurrengo mailara igotzen lagunduko digute. Zer egingo dugun pentsatuko dugu, maila bakoitzean zer lortu behar dugun, nola antolatu behar dugun, etab. Eta, aurrerago, gure proiektua abiaraziko dugu.



Hau da gure proiektua:





| PP/I.1 | Egin amets!, gure proiektua  |
|---|--|
| Deskribapena | Jarduera honekin, parte-hartzean oinarritutako proiektu baten diseinuari ekingo diogu. Fase honetan, proiektua aukeratzea eta bizikidetzara arauak ezartzea dira zeregin nagusiak. |
| Teknika | Talde-lana |
| Materialak | <ul style="list-style-type: none"> – PP/I.1 tresna – PP/I.1 baliabidea – Proiektuen gaiak idazteko papera, horman itsasteko zelo papera |
| Funtsezko alderdiak | |
| <ul style="list-style-type: none"> - Irakasleak parte-hartzean oinarritutako prozesu baten plangintza egiteko faseak zehaztuko ditu, baina ikasleak izango dira protagonistak. - Lan-taldeen lan egiteko arauak gogoratu behar dituzte, taldeko konpromisoak bete ahal izateko. - Sor daitezkeen edo iradoki daitezkeen proiektuak: <ol style="list-style-type: none"> 1. Kuadrillen jaia 2. Gazte-eguna 3. Gelako bloga 4. Bideoklip-lantegia 5. Graffiti-lantegia 6. Irteera-eguna 7. Kanpaldia 8. Auzotarrentzako aste kulturala 9. Gela hornitzea 10. Gaztegune panela 11. Udarako ekintzen informazio-gunea (udalekuak, elkartrukeak, bidaiak...) 12. Etxerako lanak egiteko laguntza-taldea 13. Txikiei zuzendutako laguntza-taldea 14. Nagusientzako informatika-lantegia 15. Kirol anitzen eguna 16. Dantzaldiak 17. Tortilla-eguna 18. Gazteentzako baliabideen gida 19. Herriko taldeekin kontzertua 20. ... II/10 jarduera ikusi | |
| Garapena | |
| <ul style="list-style-type: none"> – Lehenengo saio honetan, parte-hartzean oinarritutako proiektu baten plangintza egiten hasiko gara. Hasteko, prozesu osoa zertan datzan azalduko diegu ikasleei. PP/I.1 tresna lagungarria izan daiteke fase bakoitza ulertzeko. – Ulertu denean, ikasleek proposatutako proiektuen zerrenda bat egingo dugu, eta irakasleen proposamenekin osatuko dugu. Proiektuek egingarriak eta ikasleek garatzeko modukoak izan behar dute. – Ikasgelako hainbat tokitan idatziko ditugu, eta zenbakitu egingo ditugu (1-2-3-4...). Ikasleek irakurri egingo dituzte, eta, dituzten interesen arabera, garatu nahi duten gaiak aukeratzeko dute (aukeraketa egiteko arrazoi nagusia gaia izango da, ez da bultzatuko bestelako interesik). – Taldeak bilduko dira (berdin dio ikasle-kopurua desberdina bada), eta taldean positiboki lan egin ahal izateko bizikidetzara arauak zehaztuko dira. Arau horiek funtsezkoak izango dira taldearen eta lanaren garapenerako, eta, beraz, beharrezkoa denean gogoratuko dira. | |



PP I.1 baliabidea: parte-hartzean oinarritutako prozesurako metodologia. PARTE HARTUZ
(UPV/EHU). Abusu-La Peña, Arrigorriagan. *Hacia una definición participativa de un horizonte de futuro común para el barrio.* Guggenheim txostena, 2008ko ekaina (Lejona, Izaskun eta Apodaka, Marije)

Eskolan parte-hartzea garatzeko oinarriak:

- **IEP (Ikerketa-ekintza parte-hartzailea) metodologia**, errealitatearen ezagutzaren eta horren gain egindako esku-hartzearen **eraikuntza kolektiboa**: metodologia honen helburua parte-hartzean oinarritutako prozesuak bultzatzea eta abiaraztea da, komunitate berbera osatzen duten eragileek eta pertsonek eguneroko zereginen eragiten dieten gaien inguruan gogoeta egin dezaten eta eztabaida dezaten, eta, halaber, euren errealitateari buruzko diagnostikoa egin dezaten eta identifikatutako beharrei erantzuteko ekintzak abiaraz ditzaten.

- **Herritarrek parte-hartzean oinarritutako prozesua zehazten eta garatzen laguntzea**: honelako prozesuetan, beraz, ikerketan inplikaturako pertsonak ez dira objektutzat hartzen, baizik eta abiarazitako prozesuaren zati aktibotzat. Aztertua izatetik (objektua), lantzen ari garen ekintzan eta ikerketan parte hartzera (subjektua) igarotzen dira. Dinamika horrek etengabe gogoeta egitea eta ekintza kolektiboak garatzea eskatzen dio komunitateari.


- **Hainbat eragileren artean partekatutako diagnostikoa**, ingurua aztertzeko eta lehenetsunak eta jarduketako-ildoak ezartzeko: garrantzitsua da metodologia honen bitartez komunitate bereko pertsonen artean harremanak ezartzeko modu berriak lantzen direla azpimarratzea, lotura eta gizarte-sare berriak berreraikiz eta lotuz.

Tresnak eta teknikak:

- Elkarrizketa pertsonalak eta zuzeneko lana.
- Gogoetarako eta ebaluaziorako lantegiak.
- Eztabaida-foroak eta jarraipen-batzordeak.
- Prestakuntzarako ekimenak eta inguruko inpaktua: hitzaldiak, kaleko animazioa, jardunaldiak,...

Eskolan parte-hartzea garatzeko oinarriak:

- Estamentu guztien protagonismoa eta ordezkaritza bermatzea erabakitzeke foroetan
- Parte hartzeko egiturak berriz pentsatzea; baliagarriak direnak sustatzea eta organigrama gehiegi ez nahastea.
- Lan-talde bakoitzaren zereginak zehaztea
- Komunikatzeko uneak eta espazioak irekitzea ikasgelan eta ikastetxean. Elkarrekin egotea eta partekatzea.
- Produktu komunak sortzea eta apur bat aurrera egitea erabakietan.
- Gogoeta egitea eta egindakoa parte-hartzearen ikuspegitik ebaluatzea
- Informazioa transmititzeko bideak zaintzea
- Koherentzia eta adostasun maila ebaluatzea jarduketetan eta ikastetxeko erabakietan
- Harreman-ereduak lantzea, aukera-berdintasuna bilatuz eta boterearen kudeaketa demokratikoa sustatuz.
- Ikasgela kanpoko ekarpenekin aberastea eta ikasgelan lantzen denak inguruan eragina izatea.
- ...



ekarpenak

Psikomotrizitate-aretoak herritarrentzat

Azken boladan, psikomotrizitate-aretoak irekitzen ari dira Lasarte-Orian, Tolosan, eta abarretan. Ireki berria da Urretxuko “Xume” aretoa ere



Karmele MADINA ARRIETA
Psikopedagogo, Haur Hezkuntza irakasle
eta psikomotrizista

Zergatik eta zertarako ireki psikomotrizitate-aretoa herritarrentzat?

Haurra, gaur egun, helduek esaten dioten tokian dago ia beti: etxean, eskolan, eskolaz kanpoko jardunetan, telebista aurrean, ordenagailuko jolasetan, eta abarretan. Oso bideratuta dute dena, eta oso mugatuta daude norberaren ikerketa, ekimena eta sormena garatzeko.

Lehenengo haurra gehiago ibiltzen zen kanean, eta asko jolasten zen. Han bizi zituen jolas sinbolikoak. Orain, berriz, sarriagotan egon ohi da leku itxietan, eta beldur handiagoa dio kanean ibiltzeari. Horrela, mugatua sentitzen da haurra, eta ez diogu haur izaten uzten. Hori da, agian, psikomotrizitate-aretoak sortzearen arrazoi nagusia, jolas librea, mundu sinbolikoa garatzen laguntzen duena.

Psikomotrizitateak duen balioa haurarentzat

Psikomotrizitateak oso leku garrantzitsua dauka haur hezkuntzan, pertsonaren garapen fisiko, psikiko eta soziala ahalbidetzen duen, errazten duen eta suspertzen duen gaitasun gisa hartzen den aldetik.

Bernard Acouturier irakasleak adierazten duenez, psikomotrizitate saioetan gorputzarekin egin behar da lan eta gorputzetik abiatuta, hura baita gainerako gizakiekin komunikatzeko lehen bidea, emozioen eta sentazioen oinarria eta afektibitatea eta nahiak adierazteko tresna. Muskuluena tonua, begirada, distantziak, jolasa, mugimendua, eta, batik bat, ekintza eta elkarreragina dira esku hartzearen elementu nagusiak. Guzti horretarako jolasa da bidea.

Psikomotrizitateak aukera paregabea ematen die haurrei beren bulkadei bide emateko, erruduntasun-sentimendurik gabe. Bulkada horiek arintzea funtsezkoa da oreka afektiboa lortzeko.

Haurrek, euren hasieratik adierazpen motorraz baliatzen dira inguruko mundua ezagutzeko, euren buruak ezagutzeko, euren beharrak asetzeko eta era autonomo batez moldatzeko.

Era berean, munduarekin elkarrekintzan dauden gorputz esperientzia horiek dira haurren psikismoa oinarritzen dutenak. Haurrak ikasteko duen desira, egiteko, ekiteko eta izateko desiran nabarmenduko da.

Mugimendu bakoitzak, joko bakoitzak, keinu bakoitzak zentzu sinboliko bat dauka, eta horiek, prestaturiko giro egoki batean ematen direnean, haurrari pertsona mo-

duan potentzialtasun osoz garatzeko aukera ematen diote.

Laburbilduz: mugimenduak, ekintzak, jolasak eta hautemandako plazera haurren garapen pertsonalaren gako bilakatzen dira.

Haurrari “bera izaten” lagundu egin behar zaio. Psikomotrizitateak egoera hobean jartzen du haurra: ikasteko, lana hobeto egiteko eta, batez ere, bere buruarekin hobeto sentitzeko. Azken finean, horixe da psikomotrizitatearen egitekoa.

Psikomotrizitate-saioetan, haurra bera da protagonista nagusia, eta, gorputzaren mugimenduaren bidez, bere interesak eta beharrak adierazten ditu. Saiotako jolasak haurren garapen afektiboan, sozialean, sortzailean eta kognitiboan lagundu behar du; eta, batez ere, haurren segurtasuna zaindu.

Ez da horren erraza hori guztia ongi egitea

Oinarrizko abiapuntua da helduak prestakuntza ona izatea, espazio egokia edukitzea, denbora eta material berezi eta konplexuak eskaintzea... Horregatik, garrantzitsuak dira, alde batetik, helduak haurrekin egiten duen zuzeneko lana, eta, bestetik, hezitzailearen prestakuntza eta inplikazioa. Psikomotrizitatean, haurrak mugimendu askea du. Helduak utzi egiten dio haurrari jolasten, eta uneoro behatzen dio. Beharren arabera, gerturatu egiten da, eta modu sotilean probokatzen du, zerbait eskainiz; haurrak berak erabakitzen du eskaintza horri jarraitu ala ez.



Hainbat ikastetxetan egiten dira psikomotrizitate-saioak

Azken hamarkadetan, psikomotrizitate-praktika asko hedatu da ikastetxeetara. Hainbatetan, gero eta prestakuntza egokiagoa dute irakasleek. Hala ere, denbora nahiko mugatua da. Eta, haurrarentzat ona bada, zergatik ez eskaini aukera hori ikastetxeetatik kanpo? Hortik abiatzen da, agian, herritarrei irekitzen ari zaien espazio berri horien eskaintza.

Psikomotrizitate-praktikak baditu helburu zehatz batzuk

- Haurrari "bera izaten" lagundu behar zaio, seguruago ager dadin eta sortzaile izan dadin. Hori lortzeko, errespetatzen dutela,

entzuten diotela, onartzen dutela eta aske dela sentitu behar du haurrak.

- Harreman pertsonal egokiak lortzen lagundu behar zaio. Haurra, segurtasuna duen heinean, "bera" sentitzen den heinean, harreman pertsonalak normalizatzen joango da. Bai bere kideekin eta bai helduekin.

- Haur bakoitzaren mugimendutik, ekintzatik, abiatzen da psikomotrizitatea, eta hori ulertu eta interpretatu egin behar da. Hau da, haur bakoitzaren eskaera ezagutu behar da, eta horri erantzun egokia eman behar zaio; zerbait psikologikoa da. Izan ere, haur bakoitzak bere sakoneko adierazpen motorra du, pertsonala, beste guztien-gandik desberdina dena. Horregatik, kon-tuan hartu behar dugu haurra nola mugitzen den, bere gorputza nola erabiltzen duen, zeri begiratzeko dion eta nola, barre egiteko erraztasuna duen ala ez, desadostasuna nola adierazten duen edo nola negar egiten duen, zailtasun baten aurrean nola hartzen duen arnasa, erritmoa, espazioak hartzeko era, pertsonak tratatzeko modua, jokoan eta harremanetan nola erantzuten duen...

Nola antolatzen da saioa?

Labur-labur esanda, horrela garatuko litzateke saio bat:

- *Sarrerako errituala*. Biribilean eserita, saio horretan zer eskainiko den eta zer arau bete behar dituzten adieraziko da: "hau ongi pasatzeko toki bat da; beraz, hemen ez zaio inori minik ematen", adibidez.

- Saioaren garapena:

- *Hasiera adierazteko*, modu zehatz bat erabiltzen da; normalean, eraikita dagoen apar-gomazko *pareta hausten da*.

- Haurraren adierazpenean, *barne-segurtasuna sentitzen* laguntzen zaio.

- Mugimendu libreak eskaintzen dion zentzu-mugimenduen *plazera* bizitzeko lagunduko zaio.

- Era guztietako *jolas simbolikoa* adieraziko da.

- *Amaierako errituala*. Hitz egitea, bizi-penak eta sentipenak adieraztea, plastilina, marrazkia, eraikuntza eta abar. Ipuina kontatu edo irudi bat paretan proiektatu, eta haren gainean hitz egin, kantaren bat abestu, edota muxu batekin amaitu. Horrela, saioa itxi egiten da.

Saioaren garapenean arabera, helduak



Urretxun ireki berri den "Xume" psikomotrizitate aretoa.



GELDI edo STOP esatean, hurrek 10era arte zenbatu behar dute, geldi egonez. Hala, dinamika desegokiak bideratzeko aukera eskaintzen da. Hainbatetan, musika ere erabiltzen da, oldarkortasunik baldin bada, lasaitzeko, eta, giro geldoegia baldin bada, giro dinamikoagoa sustatzeko.

Jolas librea metodo gisa

Jolas librea, bat-batekoa, ez-gidatua eta epaitu gabea da metodorik egokiena. Psikomotrizistak haurraren portaerari behatzen dio, autonomiari garatzen uzten dio, eta bideratu egiten ditu agertzen dituen zailtasunak eta gatazkak. Jolas librearen bidez, haurrak barneko eta kanpoko munduak adierazten ditu, modu sinbolikoan. Horrela, haurrak bere fantasia, beldurra, zailtasuna, sormena eta abar azalduko ditu, eta lantzeko bidea izango du. Jolasa, gainera, garapen intelektualaren oinarria da, buru-prozesuak eragiten baititu.

Jolas librearen bitartez, haurrak asmatu eta akatsak egiten ditu, eta bere “porrotak” gainditzen saiatzen da. Hori guztia sendotu duen haurrak oinarri sendoa du bere garapen psikoafektiboan.

Neurri zehatzak hartu behar dira

Aretoa saiorako prestatzeko unean, baztertu egin behar da adinen arabera gure

ustez arriskutsua izan daitekeen oro, edo norberaren mugimendurako oztopo izan daitekeen oro. Oro har, adierazpena errazteko eta komunikaziorako bide izango den materiala edukiko dute haurrek eskura.

Askotariko materiala (sokak, puxikak, uztaiak, pilotak, oihalak, hainbat paper mota, kartoizko kaxak, apar-gomazkoak, lastairak, aparrezko hodiak...), haurrak edo zer irudikatzen edo antzetzeko aukera es-

kain dezakeena, arriskurik gabea, eta egituratzeko nahiz eraikuntzarako aukera eman-go duen materiala.

Gurasoen inplikazioa

Behar-beharrezkoa da aretora joaten diren gurasoekin elkarrizketak izatea haien seme-alaben jarraipenaz eta bilakaeraz. Horrek guztiak asko lagun lezake haurraren garapen integrala hobetzen. •





Parte hartu, partekatu

Hezitzaileon ekarpenak sustatu nahi ditu *hik hasi*-k.

Zure esperientziaren berri emateko bidali ieazkiguzu ondokoak:

- Testua, bere izenburu eta sarrerarekin, eta azalpen teoriko eta ondorioekin.
- Esperientziaren hiruzpalau argazki (baimenarekin).

aldizkaria@hikhasi.com helbidera bidali



dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat ikusgai

Dagoeneko 112 dokumental eskura

Amerikanuak
Anuken egia
Arrhash, pozoina
Banlieues. Pariseko erreboltak
Basque hotel
Bidaia Intimoak
Botilen hilerria
Companys eta Agirre azken erbesterantz
Debekatuta dago oroitzea
Egunero
Elburua Gernika
Euskal Herria: Ezkutuko zorra
Euskararen jatorria: Enigma europar bat
Garrasia Saharatik
Gudari baten egunerokoa
Haizea eta sustraiak
Insumisioa. 20 urte desobeditzen
Iparraldea XXI

Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean
Iruña-Veleiako misterioa
Itoitz hustu arte
Itsasoren alaba
Langile autonomia
Leku hutsak, hitz beteak
Nire bizi osoa espetxean
Nómadak Tx
Oroitarría
Perurena
Pluja seca - Euri lehorra
Sagarren denbora
Sahara marathon
Salda badago
Santi Brouard. Euskal Herria Osagai. Duintasuna omen
The Yes Men fix the world
Tortura Euskal Herrian

...eta askoz gehiago

Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu,
jarri gurekin harremanetan:

multimedia@argia.com

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

argia.com

EGUZKI
BIDEOAK *elkartanean*



galdeidazue

Hezkuntzako profesionalok zer ikas dezakegu sexologiatik ikasgelan ditugun neska-mutilei laguntzeko



Hezkuntzaren arloko profesionalak pertsonen sexualitatearekin loturiko egoerekin lan egin behar izaten dute; pertsonen desira eta guraria erotikoekin loturikoekin; sexuen arteko erlazioak kudeatzeko askotariko moduekin: azken batean, subjektu sexudunak izatetik eratorritako askotariko alderdiekin. Horrenbestez, ez da harriztekoa izaten hezitzaileak egoera horiei aurre nola egin ez dakitela ibiltzea, edo ez izatea egoera horiek kudeatzeko baliabide edo tresnen jabe. Eta ohikoa da, halaber, hezkuntzaren arloko profesional asko egoera horiei norberaren esperientzia propioetik aurre egiten saiatzea, beste baliabiderik ezetan. Norberari lagungarri gertatu zitzaion hori erabiltzen dute, “zentzu komunak” eta “asmo onak” agintzen dietena gomendatzen edo baztertzen saiatzen dira. Jakina, borondaterik onenaz; beraiekin ere halaxe ari izan zitezen nahi izango baitzuten. Baina, gure ustez, “asmo onak” ezin har daitezke baliabide didaktiko modura. Jakina, ahal dugun ongien aritu behar dugu, baina hori ez da aski (edo ez da izaten aski), bere horretan; horregatik, iruditzen zaigu funtsezkoa dela sexologiako ezagutza batzuk gureganatzea, hezkuntza-jarduera errazteko.



Elena JIMENEZ
SEXUNE KOLEKTIBO SEXOLOGIKOA

Sexu-hezkuntza: zer den urgentziatzkoa eta zer garrantzitsua

Askotan, premiak bultzatuta sorturiko eginkizunak betetzeko deitu ohi digute. Sua pizten denean suhiltzaileei deitzen zaie bezalaxe. Alegia, nahi ez den zerbait gertatzeko arrisku bizia dagoenean gogoratu ohi gara sexologiaz eta sexu-hezkuntzaz. Izan ere, erakunde publikoek jokabide jakin batzuen prebentziorako esku-hartzea susta-



Jorge ORTEGA
SEXUNE KOLEKTIBO SEXOLOGIKOA

tzen dute, batik bat; eta ez, hainbeste, sexuen hezkuntzarakoak. Eta, hain zuzen ere, urgentziaren logikan kokatu behar dira “suteak itzaltzeko” diseinatutako esku-hartze horiek.

Mota horretako ekintzetan, hauek izaten dira ohikoenak: nahi gabeko haurdunaldien prebentzioa; Transmisio Genitaleko Infekzioak (TGI) saihesteko prebentzioa; indarkeriaren, abusuen, traumen... prebentzioa, etab. Oro har, prebentziora oina-

rrituriko ekimenak izaten dira, arriskuak eta arriskuko jokabideak saihesteko xedez gauzatuak. Urgentziaren logikan murgildu ohi gara, gertaera gutxi asko mediatiko, gutxi asko politiko edo gutxi asko errentagarriek bultzatuta, gure ustez. Eta, horrela, nahastu egiten dira bi logikak: urgentziakoa denarena eta garrantzizkoa denarena. Baina ez dugu ahaztu behar ez direla gauza bera; edo, gutxienez, ez dutela zertan izan gauza bera.

“Garrantzizkoa dena” eta “urgentziakoa dena” parekatze horretan, sexua arrisku-iturri modura hartu ohi da, sarritan; edo arazo-iturri modura, bederen. Gaitz larriagoak saihestearren landu beharreko zerbait da, urgentziaren logikaren ikuspegi horretatik. Izan ere, zenbatetan ez ote dugun esan garrantzizkoa dela gazteak “sexu kontuen” jakinaren gainean egotea, nahi gabeko egoerak saihesteko. Hain zuzen ere, labur esanda, sexua jarduera erotikoekin identifikatzen dugu: zehatzago esanda, genitalekin egiten diren jarduerekin, eta, are zehatzago, kopulatzearekin. Askotan, nahita ez bada ere, antisorgailuez eta TGIez mintzo garenean, kopularen apologia egiten dugu, jarduera erotikoa “osoena” eta “onena” balitz bezala harturik. Alegia, sexu-eredu gailenaren diskurtsoa sendotzen dugu.

Sexu-eredu gailena

Urgentziaren logika horri arretaz erreparatu gero, haren muinean sexu-eredu murriztaile bat dagoela ohartuko gara. Tradizioz, eredu murriztaile horretan, jarduera erotikoekin parekatu izan da sexuaren kontzeptua bera, eta ulertu izan da ugalketa dela sexu-funtzioaren azken jomuga edo osoko sexu-funtzioa. Hala, honako hiru ardatz hauen inguruan egituratu da sexu-eredu gailena: gaztetasuna, horixe delako ugalketa-garaia; kopulatuzea, ugalketarako bidea ematen duen jarduera erotikoa bakarrik delako; eta heterosexualitatea, ugalketarako beharrezko konfigurazioa delako. Gaur egun, jarduera erotikoen legitimazioa ugalketak baino gehiago plazerak dakarren arren, *gaztetasuna, kopula eta heterosexualitatea* hirukoak du hegemonia, moral sexual kulturalen.

Sexu-eredu gailenaren ezaugarri nabarmena da, halaber, sexuak eta sexu-ezaugarriak antagonista, dimorfiko eta bateraezintzat hartzea. Gizonak, alde batetik, eta emakumeak, bestetik, homogeneizatzen dituzten bi esentzia mistiko balira bezala. Horre-

la, ezikusiarrena egiten die edo ezkutatu egiten ditu sexuen arteko zubi iraunkorrak, eta ez du aintzat hartzen intersexualitatea subjektu sexudun ororen funtsezko ezaugarria dela. Bestalde, sexuen arteko berdintasuna gaur egun indar betean dagoen balioa da. Hainbeste, non gutxietsi egin baititu sexu-diferentziak eta subjektu sexudunen arteko aniztasuna. Eta, horrela, beste behin ere, sexu-eredu gailena pertsonak homogeneizatzen saiatzen da, eta urrundu egiten gaitu desberdintasuna eta aniztasuna landu beharreko balioetatik hartzeko bidetik.

Baina zer gertatzen da norbait eredu horretatik aldentzen bada? Elkartzeko errotarako mugen eta baimenen esparruan, estigmatizatu eta patologizatu egin da, modu askotan, genitalarekin loturarik ez duen oro, kopularekin eta orgasmoarekin loturirik ez duen oro. Tradizioz, perbertsotzat hartu izan da aniztasunaren zantzu hori, nahiz eta, gaur egun, gure burua moderno-agotzat daukagun, *parafiliko* hitza erabiltzen dugulako halakoetan. Horrenbestez, bana-koaz kanpoko irizpideen arabera kalifikatzen (edo deskalifikatzen) gaitu eredu horrek; kanpotik izendatzen eta kategorizatzen gaitu; lerro bat markatzen du “normala” denaren, gaixotasuna denaren eta nahi ez izatekoa denaren artean.

Subjektu sexuduna izateko eta harremanetan izaera hori adierazteko modu bereziek arazoak edo zailtasunak ekarri ohi dituzte, sarritan; baina ez horiek bakarrik. Izan ere, zailtasun horietako asko pertsonen biografiaz haratagoko kontua dira: gehiago erantzuten diete unean uneko motibazio moral edo politikoei; azken batean, sexu-eredu gailenaren interesei. Hala, komenigarria da gogoeta sakona egitea, errealtatearen irudi distorsionatua ematen duen prisma batera baikaramatza arriskuaren logikaren ikuspegiak. Funtsean eta forman, larritasunaren ikuspegitik landu ohi da urgentziaren eredu.

Esate baterako, hedabideetan gazteria arriskuarekin edo arduragabekeriarekin identifikatzen dutenean, gazteria estigmatizatzeo zenbait alderdi negatibo nabarmendu ohi dituzte. Errealitate partzial eta desitxuratua erakusten dute. Ez ote gara ari gazterien eta arduragabekeriaren errealtate hori berregiten? Auzi horretan, ez al du berebiziko eragina guk auziari begiratzeko dugun moduak?

Sexua jarduera erotikoekin identifikatzen dugu: zehatzago esanda, genitalekin egiten diren jarduerekin, eta, are zehatzago, kopulatzearekin. Sexu-eredu gailenaren diskurtsoa sendotzen dugu



Adibide bat jarriko dugu, arriskuaren logikaren ikuspegi hori hobeto azaltzeko. Pentsa dezagun hamar urteko neska baten. Pubertaroko lehen aldaketak sumatzen ari da; besteak beste, jokabide autoerotikoak gauzatzen ditu; ongi sozializatuta eta bere kulturaren errotuta dago... Halako batean, eskolatik irten, eta senargaia daukala esan dio amari. Eta amak zera erantzun dio, irmo: *Senargaia, ez! Laguna izango da!* Une horretan, pentsamendu-kate hau etorri zaio amari burura: *senargaia – sexu harremanak – jarduera erotikoa – gazterien arduragabekeria – norbait alabaz balia daiteke – litekeena da ez jakitea bere burua balioesten – litekeena da nahi ez duen zerbait egitea – haurdunaldia – transmisio genitaleko infekzioak...* Eta, pentsamenduen zurrumbilo horretan, ondorio (edo epai) hau eman du amak: *Nire alaba gaztegia da horretarako.*

Amaren erantzuna arriskuak baldintzatua dago, eta beldurrak elikatua. Ohikoa da errealtateari sexu-eredu horretatik abiatuta aurre egitea; beldur horietatik (persona hezitzaileen beldurrak) abiatuta aurre egitea. Eta badakigu, halaber, hezkuntzaren arloko profesionalak garen heinean, oso nekeza dela eredu hegemonikoak bestelako eredu batetik jardutea. Hala ere, aitortu behar dugu errealtateak proiektatzen ari garela, eta, nola edo hala, lanean ari garen subjektu horien bizipenak eta esperientziak desitxuratzen ari gaitzkeela. Horrez gainera, horrela jardunez, ez gara ari haren beharrei erantzuten.

Adibidean, esaterako, beldurrak eta kezak eragotzi egiten diote amari alabaren bizitzako une horretara hurbiltzea. Zer

errealitate bizitzen ari da nerabea? Nola sentitzen da? Zer emozio sentitzen ari da? Zer esan nahi du harentzat senargia edukitzeak? Nola adierazten ditu erotika, haren moduak, bere desirak, keinuak edo fantasiak? Ba al daki mugak jartzen, zer nahi duen eta zer nahi ez duen esaten? Ba al du gai horri buruz hitz egiteko baliabiderik?

Alabaren tokian jartzen bagara, berriz, ikusiko dugu harreman horri buruz deslegitimazioa beste erantzunik ez duela jaso: itxuraz, harreman hori ez dela egokia, ez dela ona... Agindu bat jaso du, eta komunikazioa eten egin da. Seguru asko, nerabearen bizipena ez da ulertu, eta ez hori bakarrik: ez zaio hari buruz ezer galdetu; aitzitik, epaitu egin dute, ulerkortasun handirik gabe. Zer eduki behar duen eta zer ez duen eduki behar esan diote, bere iritzia aintzat hartu gabe. Ama-alaben arteko balizko elkarrizketa eten egin da, ez da elkarrizketarik gertatu; eta, agian, berriz nekez irekiko den ate bat itxi da.

Litekeena da neskaren bizipena zoragarria izatea, bere desiren, maitasunaren... neurriko erantzuna jasotzen duelako... edo litekeena da hala ez izatea. Agian, haren erotika mutiko horrekin egonez aseko da, elkar maite dutela jakinez, mugikorrera mezuak bidaliz eta Tuenti bidez elkar komunikatuz, tarteka elkarri musu bat emanez eta pixkanaka elkar ezagutuz... edo agian ez.

Esparru teorikoari berriro helduz, azpimarratzekoa da, Efigenio Amezuak dioen moduan, "... *Edozein diziplina ikasteen, dagoen eremuaren nondik norakoez jabetzeko bidea ematen duten teoriak eta kontzeptuak lantzen dira, beste ezer baino lehen, eremu horretan gerta daitezkeen arazoak ulertzeko eta irtenbide posibleak bilatzeko*". Hortaz, "arazo" ahalguztidunetara eta haiei aurre egiteko "talka-planetara" jo aurretik, zer garen ulertzera bideratu beharko genituzke hezkuntza eta esku-hartzeak; alegia, subjektu sexudunak garela ulertzera. Eta hortik abiatuta, (gure burua) ezagutzeko, (gure burua) onartzeko eta (gure burua) adierazteko tresnak eskaini (gure buruari).

Ugalketa, plazera eta sexua

Sexuen Teoriari jarraituz, esan ohi dugu, sarritan, sexuaz hitz egiten ari garela usate dugunean ez garela benetan sexuaz ari, ugalketaz eta plazeraz baizik. Ugalketa eta plazera sexuen berezko elementuak dira;

baina hori besterik ez: elementuak. Hiru kontzeptu horiek guztiz parekatzen eta identifikatzen baditugu, horiek bereizteko gai ez bagara, halako sinekdoke moduko bat egiten ariko gara, parte bat osotasunarekin nahasirik; eta horrek asko zailduko ditu ezagutza, komunikazioa, ulermena, etab.

Ugalketaren kontua aspaldiko kontua iruditzen zaigun arren, sexuaren kontzeptuarekin identifikatu ohi dugu ugalketa, sarritan. Gizarte-diskurtso gailena entzuten badugu, ohartuko gara kopulatzea ulertzen dugula "sexua egite" modura, oraindik ere. Hau da, ugalketarako balizko berezko jarduera hori hartzen da jarduera erotikoa hoberen eta osoen modura. Hori nahikoa ez, eta badakigu, gainera, kezkatu egin behar dugula, baldin eta jarduera hori orgasmoarekin behar bezala amaitzen ez bada. Itxuraz, kopularik gabe, ez du merezi elkartzetik. Paradoxikoki, permisibitate handi samarreko garai batean bagaude ere, espazio publiko gehienetan, zakila baginan sartzea da, oraindik, amodio-jarduera nagusia: gehien balioesten, goraiatzuten eta, batez ere, adierazten dena. Zalantzarik gabe, ugalketara bideratutako sexu-eredu gailen batek oinordekotzan utzitako zantzua da hori. Horrela, ezkutuan gelditzen da jende askorentzat eta une askotan kopulatzea ez dela ez lehenetsitako jarduera ez jarduera atsegingarriena.

Bestalde, sexuaren helburutzat ugalketa jarri ordez, plazera jartzen da, orain. Izan ere, plazeraz mintzo gara, askotan, sexuaz ari garelakoan. Errepresioaren planteamenduaren pean, ugalketaren eredutik eratorritako murrizketa askori kontra egiteko joera izan dugu. Kontrako erreakzio moduko bat bideratu dugu, eredia osotasunean zalantzan jarri gabe. Gaur egun, esan ohi da garrantzizkoa ez dela ugalketa, plazera baizik; eta, hala, ondorioztatu dugu sexuaren azken xedea plazera dela. Baina plazerak ez du azaltzen zer garen; aitzitik, garen horren ondorioa da. Plazera sentitzen dugu (edo ez), subjektu sexudunak garen heinean, hain zuzen ere. Zerbait gustukoa dugu (edo ez), desberdinak garen heinean. Horregatik, ez dute balio "plazer goren" erdiesteke erreza unibertsalek, ez garelako berdinak; beraz, plazer horretara iristeko nor bere bideak bilatu beharko ditu.

Bi kontzeptuak, ugalketa eta plazera, subjektu sexudun izatearekin lotuta daude,

bestelakotasunaren bilaketarekin lotuta; baina sexuen ondorioak besterik ez dira. Auziaren gakoak gure izatean datza: subjektu sexudunak gara, desberdinak, askotarikoak, eta bila dihardugu. Bide horretatik jarraituta, begi-bistako ondorioa dirudi zer gusatzten zaigun eta plazera zerk ematen digun jakiteko, gure burua ezagutu beharko dugula, eta, noski, gure burua aintzat hartu.

Ugalketaren funtzioa ugaltzea da; plazerarena, gozatzeta; eta sexuarena, sexutzeta. Baina nola sexutzen gara?

Sexutze-prozesu biografikoa

Sexologian, sexuaz mintzo garenean, gizonak eta emakumeak garela esaten dugu; eta subjektu sexudunak garela; eta, gainera, ezinezkoa zaigula hala ez izatea. Baina zerk dakarkigu norbera garen gizon edo emakume hori izatea, eta ez beste bat? Hain zuzen ere, horixe argitzen du sexutze-prozesu biografikoak.

Jaiotzen garenetik –are jaio aurretik ere– heriotzara arte, gure izatea markatzen duten eta bakar eta berdingabe egiten gaituzten hainbat gertaera bizi ditugu. Bizitzan zehar, besteak ez bezalakoak, desberdinak egiten gara. Horregatik da gure sexutze-prozesu biografikoa berdingabea eta bakarra, eta horrek egiten gaitu, aldi berean, subjektu sexudun berdingabe eta bakarrak. Sexuak, sexologiaren ikergaiak, desberdintasunarekin eta askotarikotasunarekin zerkusia du. Prozesu horretan, ezin konta ahalera eragile sexutzailerik parte hartzen dute: horietako batzuk biologikoak dira, beste batzuk kulturalak eta denak biografikoak. Horrela, gizon eta emakume modura sexutuko gara, bi modu posibleetan: maskulinoan eta femeninoan, nor bere ñabardura eta berezitasunekin.

Intersexualitatea, gakoa

Gako horrek erakusten digu bi sexutze-moduak, femeninoa eta maskulinoa, bata bestearen alboan gertatzen direla, elkarri erreferentzia egiten diotela eta, are gehiago, ezin uler daitekeela bata bestea gabe. Gizartean alboz albo gertatzen dira, baina baita norberaren baitan ere. Gizon nahiz emakume, guztiok baititugu maskulinoagotzat eta femeninoagotzat hartzen diren bereizgarriak. Sexuen izaera bitarra eta kontrajarria nabarmendu izana da akatsa; hori nabarmendu izana, bien arteko jarraitutasuna na-

barmendu orde.

Beste modu batera esanda, ez dago sexu-ezaugarri maskulinoak besterik ez dituen gizonik, sexu-ezaugarrietan % 100 maskulinoak denik; ezta sexu-ezaugarriak guztiz femeninoak dituen emakumerik ere. Maskulinitatea eta feminitatea bi erreferente dira, jarraitutasun baten (sexuen jarraitutasunaren) bi muturrak, eta tartean daude subjektuak, beste subjektu batzuekin alderatuta mutur batetik edo bestetik hurbilago daudela sexutze maila bakoitzean.

Nolanahi ere, sexutze-prozesuetan koherentzia dimorfikoa dagoela pentsatu ohi dugu. Alegia, ondorioztatu ohi dugu lkerrek –gizonezko izen bat adibide modura hartzearen– bizarra duelako edo janzkera jakin bat duelako, gainerako sexu-ezaugarriak ere maskulinoak dituela (XY kromosomak, gonada maskulinoak, genital maskulinoak; gainera, heterosexuala izango da, hitz gutxikoa sentimenduk adierazteko garaian, etab.). Baina espero dugun hori guztia betetzen ez bada (adibidez, neska bat heterosexuala bada, aurpegiaren eta hanketan ilea badu, eta ustez beste sexuarekin identifikatutako portaerak badauzka) bazterketa-, patologizazio-... arriskua dago. Intersexualitatea ulertzea dibertsitatea eta emakume eta gizon izateko dauden ezin konta ahal moduak aintzat hartzeko bidea da. Eta funtsezkoa iruditzen zaigu sexu-hezkuntzaren arloko esku-hartzeetan ideia horiek azpimarratzea.

Sexutze-prozesu biografikoa hobeto azaltzeko, tipularen garapena har daiteke adibide modura. Tipulak hainbat geruza ditu, bata bestearen gainean eratuak, metatuak. Hazia ernatzen denetik hasten dira geruza horiek eratzen, eta etengabe agertzen dira gero eta geruza gehiago, tipula lurretik ateratzen dugun arte edo bere zikloaren amaierara iristen den arte. Geure buruari galdetzen badiogu zer den tipula bat, erantzutean, haren geruzak aipatuko ditugu, seguru asko. Izan ere, geruzak kenduz gero, ez zaigu ezer geldituko. Bada, gure prozesu biografikoa tipularenaren antzera gertatzen da: ernatzen garenean, heriotzara arteko prozesu bat abian jartzen da. Eta nor garen geure buruari galdetuz gero ere, gure biografiaren geruzekin loturiko erantzuna emango dugu. Baina, gure kasuan, kontuan hartuta gure geruzak maila maskulinoagoetan eta femeninoagoetan sexutzen direla.

Nola lortu ideia horiek hezitzaileen jarreretan islatzea?

Jakinik askotariko subjektuekin aritu beharko dugula, askotariko portaera, desira edo/eta fantasiak topatuko ditugula, zer jarrera hartu behar dugu horietara hurbiltzeko? Non kokatu nahi dugu, lanean dihardugun pertsona horiei buruz? Labur azalduta, hiru motatako jarrerak topatu ohi ditugu:

? Debekuzkoa. Beldurrean eta murrizketan oinarritua da, ez du aintzat hartzen dibertsitatearen idiosinkrasia, eta izaera, jokabide eta sentitzeko modu jakin batzuk zilegitzen eta beste batzuk arbuiatzen, estigmatizatzen edo abolitzen saiatzen da. Jarrera horren adibide garbia da Eliza Katolikoa eta beste eliza batzuk subjektu sexudunengan proiektatzen saiatzen diren moralak, kontrolpean hartu nahi baitute elkartze mota (hala nola, heterosexuala), xedea (adibidez, ugalketa) eta garaia (adibidez, ezkonbitza).

? Permisiboa. Sarritan, debekuzko jarreraren kontrako erreakzio modura gertatu ohi da. Subjektu guztien esperimentazioa sustatzen saiatzen da. Batzuetan, subjektuen jokabidearen gaineko epai moralak ematen du, kontuan hartuta haien jarduera erotikoa (edo jarduerarik eza), desira gutxi asko erreprimituak, etab. Debekuzko jarrera baino jarrera modernoagoa da, itxura batean, baina, hala ere, moralista da, eta norbaitentzat ona zer den edo txarra zer den epaitzen du, betiere, dagokion pertsonatik kanpoko irizpideetan oinarrituta.

? Ulerkorra eta lanketara bideratua. Ezagutzan oinarrituta da, geure buruaren ezagutza du ardatz. Elkarren desberdinak garenez, funtsezko oinarria da, eta gure helburuetako bat, desberdintasuna onartzea. Hortaz, aintzat hartzen ditugu pertsonaren baitako irizpideak, eta, horietatik abiatuta, norberaren hazkunde eta ezagutzarako bide autonomoa sustatzen dugu. Ez gara tematzen norbaitentzat ona zer den edo txarra zer den esaten; aitzitik: lagundu egiten dugu, ulertzen saiatzen gara eta hazten laguntzen duten prozesu pertsonalak lantzen ditugu.

Beste adibide bat jartzearen, nerabe eta gazteentzako aldizkarietan, jarrera permisiboa eta debekuzkoa izaten dira nagusi. Alegia, zer egin behar dugun edo zer egin behar ez dugun esaten digute. Are gehiago:

Intersexualitatea ulertzea dibertsitatea eta emakume eta gizon izateko dauden ezin konta ahal moduak aintzat hartzeko bidea da. Funsezkoa iruditzen zaigu sexu-hezkuntzan ideia horiek azpimarratzea



batzuek estigmatizazioa bultzatzen dute, pertsonak jarduera erotikoa jakin batzuk egiten baditu edo egiten ez baditu, edo desira erotikoa jakin batzuk baditu. Sexologiaren ikuspegitik, jarrera ulerkorra eta lanketara bideratua da abantaila gehien dakartzana, gure ustez, eta, sexu-hezkuntzan, ez dugu esan behar zer egin behar den edo zer egin behar ez den; aitzitik: (geure burua) ezagutzeko, (geure burua) ulertzeko eta (geure burua) kudeatzeko tresnak eskaini behar ditugu. Eta, hortik abiatuta, pertsonen laguntzeko moduan izango gara: beren prozesuak ezagutzen, beren burua ezagutzen eta nolakoak diren, zer nahi duten, zer gustatzen zaien, nola gustatzen zaien, zer sentitzen duten... aurkitzen lagundu ahal izango diegu.

Hezkuntza ez da prebentzioa: garrantzikoaren logika

Jakin badakigunez, prebentzioa eta hezkuntza ez dira gauza bera; ezta sexua eta arriskua ere. Apustua, beraz, hauxe da: ez amore ematea (guztiz, behintzat), urgentziazkoa, labainkorra eta politikoki zuzena denaren inertziari, eta garrantziko denaren alde egitea, hau da: oinarri zientifikoko ezagutza, autogestioa eta norberaren autonomia sustatzea, eta berezitasunen, hau da, dibertsitateen itsaso horretan berezitasuna onartzea. Hezkuntzak gauzei eta gertaerei buruz gure burua kokatzeko eta horiek azaltzeko bitartekoa behar du izan. Horregatik, sexologia sustantiboaren ikuspegitik, honako helburu hauek lortzearen alde lan

Sexologiak balio modura hartzen du sexua; elkarren bestelakoak eta subjektu sexudun bakar, berdingabe eta desiratzaille



egiten gaituen balio modura, hain zuzen

egiten dugu:

? Ulerkortasuna eskaintzea. Ideien eta kontzeptuen bidez pertsonen subjektu sexudun izateko duten modu berezia ulertzen eta ahalik eta modu asebetegarrienean bizitzen laguntzea. Horretarako, sexologia-erloto prestakuntza behar da, ez da aski asmo ona izatea; izan ere, San Agustinek zioen moduan, “*Asmo onez zolatuta dago infernua*”.

? Dibertsitatearen ideia sendotzea. Sexudun izateko eta sentitzeko modu bakoitzari balioa ematea, aukerak zilegituz eta horien lanketa sustatuz.

? Autonomia areagotzea. Lanean ari garen pertsonen tresnak eskainiz eta beren baliabide pertsonalak aintzat hartuz, beren bizipenak eta esperientziak ebazten eta kudeatzen parte har ezaten.

Udalerrri batean garatzeko esku-hartze baten diseinu eskematikoa, azaldu dugun esparru teorikoan oinarritua

Udal proiektu bat diseinatzeko garaian, esku-hartze sexologikorako honako ildo hauek aintzat hartu beharko lirakeke, gure ustez:

? Sexu-hezkuntza: haur, gazte, heldu eta adinekoentzako sexualitate-programen bidez. Gure ustez, adin guztiei begirako sexu-hezkuntza sustatu beharra dago, bizitzaren une guztietan bizi baititugu sexudun izateko dugun moduan, gure sexualitatean, erotika adierazteko gure modu berezian eta abarretan eragiten diguten aldaketak.

? Sexologia-erloto prestakuntza: hezkuntza- eta gizarte-eragileentzat. Gure ustez, garrantzizkoa da gizartean esku hartzen duten eragile guztiek sexologiako jarduerar-

esparru komun bat izatea. Ez sexologiako profesionalak izatea, baina bai beren eguneroko jardueran agertu ohi diren egoerak kudeatzeko gai izatea.

? Hazkunde pertsonaleko programak: pertsonen ongizatea lantzeko tailer eta ikastaro zehatzak. Adibidez: adineko bikoteekideen arteko harmonia, bikotean haztea, hazkunde erotikoa, maskulinitatea, emozioak, feminitatea, autoestima...

? Aholkularitza sexologikoa herritar ororentzat: bulego modura edo/eta beste formatu batzuen bidez, sexologiako profesionalen galdera, zailtasun edo kasu zehatzei erantzun ahal izango diete. Aholkularitza horren bidez, herritarren zailtasun arin ohikoena landu daitezke.

? Terapia sexologikoa eta bikoteen terapia: ohiko zailtasun larriak lantzeko, sexologiako profesionalen bidez. Aholkularitza sexologikoa zailtasun jakin bat gainditzeko aski ez denean, lan sistematizatuagoa behar da, kanpoko laguntza profesionala. Bide horretatik, dagokion pertsonak edo dagoen pertsonen arazoaren jatorrian dauden egoerak lehenbailehen gainditzea bilatzen da, eta eguneroko zailtasunak modu autonomoan kudeatzeko gaitasuna berreskuratzea.

Programaren arabera, banakako arreta, bikoteentzako arreta, taldeko arreta edo komunitate osoarentzako arreta landu daitezke. Eta arreta modu horiek guztiak posibleak eta aldi berekoak izan daitezke. Alde batetik, gure proposamenak kontuan hartzen du biztanleria guztia (haurrak, nerabezaro-aurrekoak, nerabeak, gazteak, helduak, adinekoak), denok baikara subjektu sexudunak. Tradizioz ez da horrela izan; izan ere, askotan, gazteak eta emakumeak besterik ez dira kontuan hartu, eta, asko jota, familia-unitatearen arduradunak, gazteei begirako jarduerar osatzeko xedez.

Arreta-esparruei dagokienez, bereziki nabarmentzekoa iruditzen zaigu familia-unitatearen arduradunekin, emakumeekin, gizonekin, talde etnikoekin, etorkinekin, egoera jakin batzuetan dauden kolektiboekin (haurdunaldia eta edoskitze-aldia, askotariko arazoak, droga-mendekotasuna...) lan egitea.

Ondorioak

Sexologiak balio modura hartzen du sexua; elkarren bestelakoak eta subjektu sexu-

dun bakar, berdingabe eta desiratzaille egiten gaituen balio modura, hain zuzen. Aintzat hartzeko eta landu beharreko gertaera modura, eta ez izuarekin, sendatzearekin eta “normalizatzearekin” loturiko gertaera modura. Hain zuzen ere, Havelock Ellis soziologoaren printzipio ospetsu batek dioen moduan, landu beharreko egoera gehiago baitaude, sendatu beharreko ondoezak baino.

*EHUk antolatutako “*Hezitzaileentzat giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza mintegia*”-n aurkeztu zuten Sexunek honako proposamen hau.

Bibliografia

AMEZUA, E. *Educación de los sexos: la letra pequeña de la educación sexual*. Revista Española de Sexología. 107-108. zk. 2001.

AMEZUA, E. *Teoría de los sexos; la letra pequeña de la sexología*. Revista Española de Sexología. 95-96. zk. 1999.

EUSKO JAURLARITZA. *Interrupciones Voluntarias del embarazo en la Comunidad Autónoma del País Vasco*. Osasun eta Kontsumo Saila. 2010. Interneteko honako helbide honetan: [http://www.osakidetza.euskadi.net/r85-ckpubl01/es/contenidos/informacion/estado_salud/es_5463/adjuntos/INTERRUPCIONES-VOLUNTARIAS%202010..pdf]

FREUD, S. *La moral sexual cultural y la nerviosidad moderna*. Liburutegi birtualeko bertsioa. Interneteko honako helbide honetan: [http://www.biblioteca.org.ar/libros/211758.pdf] 1908.

LANDA, A. J., GARAY, J. *Homos y Heteros, aportaciones para una teoría de la sexuación cerebral*. Revista Española de Sexología. 97-98. zk. 2000.

LEJARRAGA, J. *A vueltas con la intersexualidad*, 2009. Interneteko honako helbide honetan: [http://heroedesillon.wordpress.com/2009/06/19/a-vueltas-con-la-intersexualidad/]

LEJARRAGA, J. *El fetichismo y las parafilias en el DSM V*, 2009. Interneteko honako helbide honetan: [http://heroedesillon.wordpress.com/2009/10/14/el-fetichismo-y-las-parafilias-en-el-dsm-v/]

LLORCA DIAZ, A. *Magnus Hirschfeld y su aportación a la sexología*. Revista Española de Sexología. 81-82. zk. 1997.

argitalpenak



Rita eta alkimistaren ametsa

Mikel Valverde Tejedor
ELKAR

Rita Pragarara joan da, elezaharrek errealitatearekin bat egiten duten hirira. Han, hiriko gaztelua arakatzen eta alkimista baten egunerokoa bilatzen ari dira. Duela urte asko, erdi azti erdi kimikari horiek edozein gauza urre bihurtzeko formula bilatzen aritu ziren. Kondairaren arabera, Gatuso alkimistak aurkitu zuen formula hori, baina amaiera misteriosua izan zuen... •



Hartza ehizatzen goaz

Michael Rosen / Helen Oxenbury
PAMIELA / KALANDRAKA

Aita batek eta haren lau seme-alabek abentura zirraragarri bati ekin diote belardi batean zehar, ibai baten bestaldean, baso batean barrena... harik eta leize batera iritsi diren arte; han hartz bat agertu zaie eta izututa etxera itzuli dira aurretik egindako bidea atzera ibiliz. Oso testu egokia da irakurtzen ez dakitenentzat zein lehen irakurleentzat. •



Ingeleseko nire lehen liburua eranskailuekin

Susan Meredith / Ina Hattenhaur
ELKAR

Ingelesa ikasi bildumaren barruan, Susan Meredithen liburua euskaraz argitaratu du Elkar argitaletxeak. 6 urtetik gorako haurrek ingelesa ikasteko hasteko 200 hitz biltzen ditu liburuak, eta hitzen eranskailuak dagozkien irudien ondoan jarri behar ditu haurrak. •



Kili txikia

Mario Ramos
TTARTTALO


Iaz zendu zen Mario Ramos ilustratzailea. Hark utzitako azken lana da *Kili txikia*; botere-abusuari buruzko umorez jositako istorio adimentsua. Liburu honetan, egileak haurrentzako ipuinak asmatzeko zuen gaitasuna eta profesionaltasuna erakusten ditu berriro ere. Bere istorioek haurrei indartsueneren aurrean defendatzeko tresnak eskaintzen dizkiete. •



Lasai, Burgi

David Melling
IBAIZABAL

Zer gertatzen da zerbaitek kezkatzen zaituenean? Burgiren aitak txano bat oparitu dio, baina, etxetik irten orduko, hondatu egin zaio. Oso kezkatuta dago Burgi, eta lagunek ez dute hari laguntzea lortu. Untxiak aholkatzen dio kontatzeko aitari zer gertatu zaion, eta aitak ezin hobeki ulertu eta bere txanoa emango dio semeari. •



Katixa, katu botadunaren abenturak

Peru Magdalena / Eider Eibar
GARA

Kateme jostalari, abenturazale eta burutsuenaren abenturak dakartza 5 ipuin eta DVDz osaturiko karpeta honetik, aniztasuna, adiskidetasuna, paretotasuna eta irudimena sustatzeko. Edizio elebiduna da, euskaraz eta ingelesez idatzia. Ipuin bakoitzak margotzeko orriak eta jolasteko pegatinak dakartza. •

... nora joango gara?

ZUMALAKARREGI MUSEOA XIX. mendeko Euskal Herrian barrena

Heziketaren alorra asko zaintzen du Tomas Zumalakarregi jeneral karlistari eskainitako Ormaiztegiko (Gipuzkoa) museoak, eta adin guztietako ikasleentzat prestaturiko ekintza sorta zabala antolatzen du: ibilbide didaktikoak, lantegiak, txango gidatuak... XIX. mendeko Euskal Herrian gertaturiko aldaketa politikoak eta sozioekonomikoak ezagutzeko eta ulertzeko gakoak eskaintzen ditu museoak, modu erakargarrian.

XIX. mendeko Euskal Herria aztertu nahi duen edozein ikertzailek dokumentazio-iturri garrantzitsua du Zumalakarregi Museoa. Hango artxibategiak garaiarekin loturiko milaka agiri eta irudi gordetzen ditu, besteak beste, argitalpenak, ilustrazioak, mapak, karikaturak, eskuizkribuak... Baina museoak ez da erakargarria historialarientzat bakarrik; herritar xumearentzat eta gazte-txoentzat ere hainbat interesgune ditu Ormaiztegiko eraikinak. Azpimarratzekoa da heziketaren alorrean museoak egin duen lana, hezkuntza baita proiektuaren zutabetako bat, artxibategiarekin, argitalpenekin eta erakusketen antolaketarekin batera.

Hortaz, adin guztietako ikasleengan, irakasleengan eta familiengan pentsaturiko ekintza didaktikoen egitarau zabala antolatzen du Zumalakarregi Museoak: ibilbideak, Zuma kontakizuna, lantegiak eta tribial jokoak, besteak beste. Zortzi ibilbide didaktikoez XIX. mendean zehar bidaia dinamikoak egiteko aukera eskaintzen dute.



Zumalakarregi anaiak: jeneral karlista eta politikoa liberala

Aski ezaguna da Lehen Karlistaldian aritutako Tomas Zumalakarregi jeneralaren ibilbidea (1788-1835), baina haren anaiak, Miguel Antoniok, ez du oihartzun bera izan, garai hartan politikari liberal garrantzitsua izanagatik. Bi anaien bidez, XIX. mendeko Euskal Herria hobeto ezagutarazten lagundu nahi du ibilbide didaktiko honek, Antzinako Erregimenetik Liberalismora egindako pasabidea bere testuinguruan azalduz. LHko, DBHko, Batxilergoko eta Helduen Hezkuntzako ikasleentzat zein familientzat prestatuta dago.

Industria Iraultza

XIX. mendean gertatu ziren aldaketa sozioekonomikoak dira ibilbide honen ardatzak: trenbidea eta beste garraiobideak, lehen industriak, hiri-zabalguneak, emigrazioa... Gida didaktikoa, bisita gidatua (1864ko Ormaiztegiko tren-zubira), multimedia-emankizuna, jokoak, jantziak eta bestelako materialak jartzen ditu museoak bisitarien esku. DBHko eta Helduen Hezkuntzako ikasleentzat prestatua dago.

Gerra eta bakea

Gatazkaren adibide gisa Lehen Karlistaldia hartuta, indarkeriaren sustrai, modu

eta ondorioei buruz gogoeta egiteko proposamena da. Kontzientzia publikoa kitzikatzeke dinamika bat aurkeztea eta zentzu kritikoa sustatzea ditu helburu, besteak beste. Halaber, *bakea* eta *bortizkeria* hitzen esanahia alderdikierarik gabe eta ertz guztiak kontuan hartuz barneratzen landu nahi die DBHko, Batxilergoko eta Helduen Hezkuntzako ikasleei ibilbide didaktiko honek.

Iraultza garaia

XIX. mendeko Euskal Herriko karlismoaren eta liberalismoaren gakoak ulertzeko, halako berrikuspen bat egitea proposatzen du ibilbide honek, eta Antzinako Erregimenetik Liberalismorako pasabide bortitz eta korapilatsuaren gaineko ezagutza, hausnarketa eta jarrera kritikoa sustatzen ditu, proposamen ludiko, erakargarri eta parte-hartzaile baten bidez. DBHko eta Helduen Hezkuntzako ikasleentzat prestatua dago.

Ibilbide hau ingelesezko gida didaktikoa (*The Century of the Revolutions*) erabiliz egiteko aukera ere eskaintzen du museoak.

Estatu liberalaren sorrera


Antzinako Erregimenaren krisialdia eta Estatu Liberalaren sorrera erakusten ditu ibilbide didaktiko honek. Batxilergoko eta Helduen Hezkuntzako ikasleentzat.

Burdinaren bideak

Museoaren inguruko industria-aztarnetan zehar ibilaldi bat egiteko proposamen honetan, Ormaiztegi tren-zubia, Zeraingo meategiak eta Legazpiko Mirandaolako burdinola bisitatuko dituzte ikasleek, eta XIX. mendean gertaturiko aldaketa sozioekonomikoen berri jasoko dute.

Iraganean bidaia

Igartubeiti Baserri Museoak eta Zumalakarregi Museoak elkarrekin antolatutako ibilbideak XVI. mendetik XIX.era bitarteko hainbat alderdi ezagutzeko aukera ematen digu: nekazarien eta hiritarren eguneroko bizimodua, arkitekturaren bilakaera, oinarri sozial eta ekonomikoak...

Horrez gain, belaunaldi arteko lantegiak (8-14 urte arteko haurrak eta 60 urtetik gorako helduak), familientzat prestatutakoak, Gabonetakoak eta udakoak antolatzen ditu museoak. 

ZUMALAKARREGI MUSEOA

Muxika egurastokia, 6

20216 Ormaiztegi

Tel.: 943 88 99 00

Web: www.zumalakarregimuseoa.net



AZAROAREN 1-ETIK OTSAILAREN 28-RA ARTE

Asteazkenetik ostiralera: 10:00-14:00

Larunbat eta igandetan: 10:00-14:00 / 16:00-19:00

Aste Santu eta jaiegunetan: 10:00-14:00 / 16:00-19:00

MARTXOAREN 1-ETIK URRIAREN 31-RA

Asteazkenetik igandera: 10:00-14:00 / 14:00-19:00

SARRERA

Orokorra: 1,20 euro / Murriztua: euro bat / Ostegunero: doan

Mitoak inguraturiko pertsonaia historikoa

Euskal Herrian azken 200 urteetan sorturiko pertsonaia historiko garrantzitsuenetako bat da Tomas Zumalakarregi. Lehen Karlistaldian (1833-1839), lau herrialdeetako karlisten buru izan zen, eta Don Karlosen armadaren gorengo buruzagia. Espainiako armada sarri garaitu zuen, eta bere boladarik onenean heldu zen Begoñara, ekainaren erdialdean, Bilbo setiatuak zeukala eta berori menderatzeko asmoz. Begoñako jauregian, bonba batek hanka zauritu zion. Zegamara eraman zuten, haren konfiantzazkoa zen petrikilo batengana; baina, antza denez, erabaki okerrak hartu zituen hark, zauritua okerrago jarri zen, eta berehala hil zen, ekainaren 24an.

Bizirik zegoen bitartean, Hego Euskal Herriko karlistek beren buruzagitzat zuten. Hamaika bider kantatu ziren haren omenezko bertso eta kantuak. Horren ondorioz, hainbat kondaira eta uste zabaldu dira Zumalakarregiren inguruan, ustelak horietako asko, Mikel Alberdi historialari eta Zumalakarregi Museoko artxiboaren arduradunak hari buruzko biografian (*Zumalakarregi*, Elkar, 1999) idatzi zuenez. Hainbat mito eraitsi zituen Alberdik. Esaterako, abertzalea zela. Alberdiren iritziz, ez dago Zumalakarregi abertzalea zela pentsatzeko arrazoirik. Foruzaletasun berezirik ere ez da ageri haren idazkietan. "Agirietan, beti argi agertzen da espainiar erregearen alde ari dela, ez foruen alde". Halaber, gezurtatu egin zuen Zumalakarregik bere burua Euskal Herriko errege izendatzeko asmoa zuenik.



atzeko atetik



Estitxu EIZAGIRRE

Kazetaria

Pirinioez alde batera bizi garenoi datorriguna ikusita, hezkuntzako galdera nagusia da: "Wert erreformaren aurrean zer?". Besteri edozer eska diezaiokegu: Jaurlaritzak har dezala Generalitat-en jarrera, irakasleek balia dezatela katedra askatasuna orain arte bezala jarraitzeko...

Baina nago giltza nagusia gurasook ote daukagun. Gure umeak dira espanyolizatzen ikusiko ditugunak, gure umeak dira eskolara herritar menpeko eta otzanak izan daitezzen bidaliko ditugunak, gure umeak etxean ere "enpollatzera" behartuko ditugunak...

Krisiaren gorrian, irakaskuntzako langileek euren ideiak lehenetsiz lanpostua jo-

Wert erreformaren aurrean, gurasook dugu giltza

koan jarriko dutela uste izatea gehitxo da (justua ere ez da, guk egiten ez duguna irakasleei eskatzea); eta Jaurlaritzak herri-kontsulta egiten duen egunean hasiko da Espainiako sistemaz kanpoko hezkuntza garatzen.

Zer daukagu egiterik, orduan, manifestazio jendetsuen biharamunean? Gurasook hartu behar dugu inizatiba. Zorionekoak gurasoak elkarturik eta mobilizatuta dituzten ikastetxeak, erabaki nagusiak gurasoen benetako parte-hartzearekin hartzen dituzten eskola-ikastolak. Gurasoen adostasun zabalarekin errazago aurre egin ahal izango dio eskolak datorrenari.

Hala ez den kasuetan ere (eta nago zoritxarrez salbuespena direla gurasoak ere proiektuaren motorra diren eskolak), intsumisioen borroka adibide ederrik ematen digu, "bakoitzak urraturik berea denon artean geurea" egiteko. Intsumisiorako bideak bilatzeari ekin behar genioke: ikasgai

jakin batzuetara umeak bidali gabe, errebalida azterketetara aurkezteari uko eginda, erreforma aldatu artean haurrak eskolara bidali gabe...

Estatu batek ezin du onartu ume kopuru handi bat bere gustuko hiritarrak sortzeko fabrika diren eskoletatik kanpo geratzea. Wertek unibertsitatetik kanpo utziko du proletargoa, eta DBHtik bidaliko ditu ahalik arinen "puntoak" ez diren ikasleak. Baina espanyolizatu, denak espanyolizatu behar/nahi ditu.

Sistema aldatzeko sistematik ateratzea, ba al da beste biderik? Sortzen zaizkigun hotzikaren, "baina"... eta beldurren aurrean, gure gurasoak ditugu erreferente sendoenak. Non hezi gintuzten bada gu, titulu ofizialik izango genuen ziurtatu gabe geneukan ikastoletan ez bada?

EHIGE, gurasoak informatu, mobilizatu eta lideratzeko aukera polita jarri dizu egoerak.



“Segurtasuna duen haurrak ikasi egiten du, maitasuna egiten du eta, gainera, osasuntsu hazten da”

ITZIAR ZUBIZARRETA

zure ziztada behar dugu

Hedabideen aldaketa sakonari indartsu heltzeko, egoera ekonomiko zailari erantzuteko eta BERRIA proiektuaren geroa ziurtatzeko, BERRIAzaleon komunitatea indartu nahi dugu. Erleak bezala, elkarlanean, gai garelako.

Izan zaitez

berrialaguna

Informazio eguneratua
eta euskarri gehiago:
www.berria.info/berrialaguna

berria^{Info}

Izen-abizenak:

Helbidea:

PK:

Herria:

Kontu zenbakia:

Tel.:

NA:

Posta elektronikoa:

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, betetik, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOAREN fitxategi automatizatu batera pasatuko direla. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzea. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOA, Iatxe Monastegia 45, 13. 31011 Iruñea.

Honako ekarpen hau egin nahi diot
BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOARI,
G71006795 IFK duena:
Adierazi X batez zure aukera

- | | |
|--|---------------------------------------|
| <input type="checkbox"/> Urtean 100 € | <input type="checkbox"/> Urtean 200 € |
| Aldi batean <input type="checkbox"/> | Aldi batean <input type="checkbox"/> |
| Lau zatitan <input type="checkbox"/> | Lau zatitan <input type="checkbox"/> |
| <input type="checkbox"/> Urtean beste kopuru bat: <input type="text"/> € | |
| Aldi batean <input type="checkbox"/> | |
| Lau zatitan <input type="checkbox"/> | |
| 100 eurotik beherako kopuruetan ordainketa aldi batean egingo da | |
| <input type="checkbox"/> Hilean 10 € | |

Sinadura

berrialaguna izan nahi baduzu,
bete datuak eta helarazi:

- www.berria.info/berrialaguna
- **Postaz:** BERRIA, Martin Ugalde kultur parkea, z/g. 20140 - Andoain
- **Posta elektronikoz:** laguna@berria.info
- **Telefonoz:** 943-30 43 45

XX. JARDUNALDI PEDAGOGIKOAK

2013ko MARTXOAREN 13 ETA 14AN
GASTEIZEN - EUROPA JAUREGIAN



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIVERSITATEA
ETA HEZKUNTZA SAHIA
MULTIPLER SAHIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
DEPARTAMENTO DE CULTURA

Caja Vital Vital Kutxa

MATRIKULA EPEA

Martxoaren 8ra arte

Informazio gehiago
nahi izanez gero:



ikastolenelkartea

www.ikastola.net

Euskal Herriko Ikastolak

Arantza Munduate

605 715 115

Zuberoa Beola

943 445 108